

Kartzelaren mugetan

arteka

EZ ISOLATU ZURE ARAZOA.

JARRI KONTAKTUAN

etxebizitzasindikatua@gmail.com



**ETXEBIZITZA
SINDIKATUA**
GASTEIZ

BURGESIAREN ERASOALDI POLITIKOAREN AURREAN
osasuna, egia, askatasun politikoak, langile antolakuntza

12 ELKARRIZKETA

Zigor Garro

**“ESPETXEA ETENGABEKO
BORROKA BAT DA (...)”**



44 ERREPORTAJEA

**ESPETXEA,
POLITIKA HILTZAILEA**



30 ELKARRIZKETA

Amin Awada

**“EZ NINTZEN OHITU KARTZELAN
PRESO EGOTERA (...)”**



66 KOLABORAZIOA

Sendoa Jurado

KARTZELA



4 EDITORIALA MUGAK

6 IKUSPUNTUA

Alain Arruti

**ESPAZIOEN GAINEKO
KONTROL BURGESA.
KRISIALDIA, PUTREAK
ETA PROLETALGOAREN
ANTOLAKUNTZAREN
BEHARRA**

26 IKUSPUNTUA

Maddi Sarasua

INDUSTRIA KULTURALA

36 IKUSPUNTUA

Martin Goitiandia

ZERGATIK IKASLE GREBA?

39 IKUSPUNTUA

Paul Beitia

**GUREA EZ DEN GURE
HIZKUNTZA HAU**

58 IKUSPUNTUA

Adam Radomski

**“ARBEIT MACHT
FREI” COVID-19AREN
GARIAETAN**

62 IKUSPUNTUA

Ane Ibarzabal

**GAZTE
BORROKAK
IRENTSI NAHIAN**

74 IKUSPUNTUA

Amets Sarasua

ZATIKETARAKO JOERAZ

77 IKUSPUNTUA

Aitor Bizkarra

**BARBAROEN
ERNAZIMENTUA**

Mugak

EDITORIALA

Hutsune argi bat dago, ikuspegi politiko kritikotik, kartzelari, bere funtzio sozial objektiboari eta klase menderatzean duen funtzioari dagokienez. Osotasuneko estrategia politikora hedatzen den hutsunea, non kartzelak ez duen leku adosturik aurkitzen. Espetxea betikotzea, hura eraberritzea edo erabat abolitzea tradizio politiko desberdinen planteamendu hautsiezina da, zehaztapen estrategiko batean egokitu beharrean urrutiko literatura utopiko baten parte direnak, gizarte kapitalistaren baldintza objektibo eta historikoen erabateko deskonexioan, sarritan betebeharrak moraletara murriztuak helburu politiko arrazionalak baino gehiago.

Kartzelak errealitate material izugarria lortu duen tokian ere, oro har, ezkerreko mugimendu politikoei dagokienez, beti bere borrokaekin eta hura hedatzen ari zen kointura taktikoarekin hertsiki lotuta jorratu izan da. Ez dugu uste hori eragozpena denik, ezta aztertzen ari gareneko gaiarekiko ikuspegi estua justifikatzen duenik ere; aitzitik, ez dugu ulertzen kartzelaren problematikari aurre egiteko beste modurik, ezta bestelako arazo sozialik ere, subjektibotasun politiko batetik, estrategia batetik eta gizarte-errealitatearen aurreko klase-posizio batetik abiatzen ez denik. Hori bai, subjektuaren bareneko batasun hori optika baten gabeziak azaltzeko baliozkoa ez den arren, ezinbestekoa da, ordea, ebazteko eskasia erreal bat subjektuaren gabeziatik abiatzen dela.

Saihestu ditzagun gaizki-ulertuak: subjektu bat nolakotasun hori besteei ukatzen dien heinean soilik da subjektu. Edo subjektua beste batzuk posibilitate horretatik kanpo uzten dituen neurrian bakarrik eratzen da. Beraz, subjektua ez da inoiz osotasun bat barnera, eta beti du kanpokotasun bat. Horregatik, kartzelaren aurreko posizio batek, beste guztiaren aurreko posizioak bezala, muga politikoak ezartzea eskatzen du, estrategiaren barruan

eta kanpoan dagoenaren artean. Horixe gertatzen da preso politikoa preso arrunt edo sozialetik bereizten duen lerroa mugatzen denean. Lehenengoak estrategia politiko baten parte izateagatik ezaugarritzen dira; bigarrenak, berriz, kontraesan sozialaren emaitza hutsa izatera mugatu ohi dira. “Kontzientzia bat-batekotasunaren aurrean”, ezaugarritzeko beste modu bat da, non bigarrenak beti galtzen duen eta inoiz ez duen aztertzea merezi.

Neurri batean, kartzelaren gaia landuz, banaketa hori desegitea izan dugu helburu, edo, zuzenago esanda, beste maila batean eratzea. Lehenik eta behin, jada ez delako klase sozialak mugatzen ez duen bazterketa eskaintzen duen estrategia bat, estatu kapitalistaren aparatu errepresiboari erantzun gisa maila taktikoan kartzelarekiko ikuspegi partikularra sortzen duena. Eta bigarrenik, lerroa desegitearen bidez proletarioaren geruza handiak gizarte-emantzipazioaren aldeko borroka politikoan sartzea bilatzen dugulako. Denak ez, ordea. Espetxea proletarioarentzako sarraski-gune bat den bezala, klase etsaiaren laguntzaile zaharkituak ere badaude bertan.

Horrela, abiapuntu bat ezartzen dugu, non kartzelaren irakurketa politikoa ez den politikoki antolatzeke egitate zuzenaren menpe geratzen, baizik eta aukera horren deuseztapen gisa ere existitzen den. Klase emantzipazio sozialaren *-eta humanitatearen emantzipazioa-*, klase proletarioaren existentziaren baldintza objektiboaren eta garatu beharreko estrategia politikoaren arteko lotura ezartzea da egitekoa.

Ez datza preso politikoa eta soziala berdintzeaz, ezta militantziari eta konpromiso politikoari balioa kentzeaz ere. Baina ezta espetxeratutako proletarioa bigarrenengotzeaz ere. Aitzitik, politikoa dena proletarioaren posiziotik mugatzean datza, preso politiko bat definitzeko orduan arbitrariotasun mota oro saihestu ahal izateko. Horrek, era berean, aukera ematen digu klase-ikusipuntu bat eratzeke kartzelaren aurrean, politikaren inguruko ikusipuntu mugatu eta aldi baterako batean agortzen ez dena *-ezta adierazpen politiko horretara mugatutako irtenbide batean, bere ebazpenak kartzelaren proble-*

Berebiziko garrantzia du kartzelaren eta haren funtzio politikoaren birdefinizioak, proletalgo osoaren gaineko klase menderakuntzaren organo instituzional gisa, eta ez bakarrik estrategia politiko egoki edo ez hain egoki bati erantzuteko mekanismo gisa

matikaren amaiera inplikatu lukeena-, baizik eta harago doana, espetxe kapitalista abolitu arte, hari forma ematen dion sistema kapitalistarekin batera.

Horregatik, berebiziko garrantzia du kartzelaren eta haren funtzio politikoaren birdefinizioak, proletalgo osoaren gaineko klase menderakuntzaren organo instituzional gisa, eta ez bakarrik estrategia politiko egoki edo ez hain egoki bati erantzuteko mekanismo gisa. Geure buruari galdetzen diogu: zein da klase irakurketa politiko bat bere azken oinarrietaraino eraman dezakeen estrategia? Zein da kartzela kapitalistak betetzen duen funtzioa?

Lehen galderari erantzuna begi bistakoa da: sozialismoa eraikitzeko estrategia proletario batek baino ez dio amaieraraino aurre egiten burgesiaren botere instituzionalizatuari. Hura ez dagoenean, desagertu egiten dira bai preso politikoa bai kartzelaren aurreko posizio politikoa, biak jada agortuta dagoen garapen taktiko-koiuntural baten beroan sortuak. Horrela, bada, politikoa, proletalgoaren klase-borrokari datxekiona, klase-borroka eta estrategia sozialista etengabe berritzea eskatzen du. Hori ematen ez den unean, politikoaren ezaugarria desagertu egiten da, eta preso normaltasun kapitalistara asimilatuta geratzen da. Horregatik, subjektua klase borrokaren mugetara zabaltzeak proletalgoari gizarte kapitalistaren aurrean duen jarrerarekin kontraesankorra ez den kartzelaren aurreko jarrera garatzeko aukera ematen dio.

Bigarren galderari dagokionez, gizarte kapitalistaren leku komuna da espetxea gizarteratzeko tresna gisa identifikatzea, lan hori burutzea ezinezkoa dela aitortzen den bitartean. Ezintasuna halakoa da, berez ez baitago ezer birgizarteratzeko: presoak ez da inoiz gizarte honetatik kanpo egon. Helburu politiko batzuen alde borrokatzen duenak gizarte honetan borrokatzen du. Jabetza pribatu kapitalistaren legeak hausten dituen gizartearen parte da, eta gizartearen kontraesanaren ondorio delako bakarrik hautsi dezake bere legea. Baina klase etsaiaren funtzioa betetzen duena ere, bortxatzaile kasu, ezin da zuzenean gizarte kapitalistatik kanporatu, askotan, gizarte-harreman kapitalistak babesteko, eskuak garbitzeko eta menderatzen gai-

tuen zentzugabekeria sozialarekiko erantzukizun politiko kolektiboak saihesteko, gertatzen den bezala – “*gizagabea da, animalia bat...*” –. Gizartearen baitako kontraesana ez da kanpokoa, baizik eta bera, gizartea, egiten du; eta horren ebazpena eraldaketa sozialerako praktika iraultzaile gisa bakarrik eman daiteke.

Espetxea sistema kapitalistaren katalizatzaile soziala da, non proletalgoa adierazgarri nagusia duen kontraesan sistemikoari datxekion desorekak orekatzen diren. Azken batean, klase tresna bat da, aipatutako eraldaketa soziala eragozteko helburu duena, tipifikatutako delitu guztiekin batera kartzela ezinbestekotasunez erreproduzitzen duen menderatze-sistema bat betiketuz; delitu horiek, gehienetan, klaseetan banandutako eta besteren lanaren ustiapenaren gainean eutsitako gizarte baten delitu historiko eta bereizgarriak dira.

Historikoa eta klasista da ere zigorraren eta askatasun-gabetzearen forma, zeina hertsiki lotuta baitago askatasun kapitalistaren kontzeptuarekin, merkantzia zirkulazio kapitalistaren bitartekaritaz eta haren aginpean sozialki interkonektatutako gizabanako askearen kontzeptuarekin. Gizarte-ordenamendurako zein beste aukera geratzen zaio forma sozial anarkiko bati, ez bada gizabanako aske eta desjabetuak ekoizten dituen dinamikarekiko gizabanakoaren deskonexio fisiko partziala? Hori da, gehienez ere, gizabanakoak gizartearekiko duen konpromisoa, eta horrela da ere gizarte kapitalistak bere desobedientziagatik ordainarazteko aurkitzen duen bide bakarra.

Hurrengo orrialdeak elementu bat izan daitezela presoekiko eta gizarte osoarekiko dugun konpromisoan sakontzeko. /

ESPAZIOEN GAINEKO KONTROL BURGESA. KRISIALDIA, PUTREAK ETA PROLETALGOAREN ANTOLAKUNTZAREN BEHARRA

IKUSPUNTUA

Alain
Arruti



CCOVID-19-aren eta ondorengo gobernuaren salbuespen neurrien ondorioz, proletalgoaren bizi baldintza orokorren okertze baten aurrean gaudela esan dezakegu. Egoera kudeatzeko ezinbestekoak diren lanpostuetan erritmoak nabarmen egin du gora; apenas segurtasun neurririk gabe dabilta lanean industria, garraio, logistika, garbiketa, osasungintza eta beste hainbat esparrutako langileak. Berehalako arrisku egoera baten aurrean aurkitzen dira guztiak.

Hala ere, krisialdi honen efektuak berehalakotasuna gainditzen du, osasun larrialdia ez ezik krisialdi ekonomiko baterako atea ireki baitezake. Zenbait aurreikuspenen arabera, 100.000 lanpostutik gora galduko lirakeke alarma egoeraren ondorioz.

Jakin badakigu proletalgoaren bizi kondizioa jabetza eza dela, zentzu guztietan. Orokorrean, be-

re bizitza-prozesuak gidatzeko kapazitate falta du, baina baita bere erreproduktzioarako beharrezkoak dituen espazio oinarritzkoen gaineko kontrolik eza ere. 2017ko datuen arabera, Espainiako Estatuko populazioaren %29,5ek hipoteka ordaintzen du, eta %22,9, berriz, alokairuaren erregimenaren pean aurkitzen da.

Banco de España 2019an ateratako buletin ekonomikoan adierazten den bezala, alokatutako etxebizitzaren ehunekoaren tasak etengabe egin du gora 2005. urtetik, eta gehienbat langile klasearen bi esparru soziologikotan nabarmentzen da: 16-29 urte bitarteko gazteak eta etorkinak. Fenomeno horren arrazoiak honakoak izan daitezke:

1. Gazteen lan merkatuan zein etorkinen lan merkatuan lan baldintza txarrak izaten dira, soldata debaluatuak eta aldi baterako kontratuak. Ondorioz, talde soziologiko horiek bizitza epe luzera planifikatzeko zailtasun gehiago dituzte.

2. Krisi ekonomiko garaietan ematen den lanaren berrantolaketa, joko kanpo gelditzen dira edo, lan merkaturatze zailagoa dute klase ertainaren banderara eraman duten 50 urtetik gorako langileek. Horrek familia unitateen ahalmen ekonomikoa murrizten du, eta, ondorioz, seme-alabek bankuarekiko duten zorpetze gaitasuna murrizten da. Bankuentzat







Krisi testuinguruan hartutako neurri horiek guztiek, behin atzeraldia amaitu ostean, aurretiaz existitzen ziren etxebizitza ordaintzeko zailtasunak areagotzea ekarriko dute

subjektu ez fidagarri bihurtzen dira abal faltagatik

Azken sei urteetan, alokairuen eskariaren gorakadak beren prezioa %50 igo du batez beste Espainiako Estatuan, eta horrek soldatan duen eragina etengabe handitu da. Espainiako Estatuan alokairuak soldataren %40 baino gehiago suposatzen dio populazioaren %37ri; Euskal Autonomia Erkidegoan batez beste %34 ingurukoa litzateke, eta Nafarroan, berriz, %25 ingurukoa.

PAHk 2019an Blackstone putre funtsaren inguruan ateratako dossierrean agertzen diren datuen arabera, 2018an 59.671 etxe kaleratze izan ziren, horietatik 37.285 alokairuaren ordainketa ezagatik.

Panorama orokor honek marrazten du alarma egoera dekretatu aurreko koadroa. Alarma egoerarekin, ordea, jada ezegonkorra zen koadro hori kolokan, ia erori beharrean jar dezake. Gobernu zentralak, bere existentzia justifikatzen duen logika ekonomikoari jarraiki, honako neurriak hartu ditu:

1. Hipotekari dagokionez, hipotekaren ordaintketaren atzeratzea agindu du, baldin eta:

1.1. Hipotekaren eta bertatik eratorritako gas-tuen kostua soldataren %35 baino handiagoa bada.

1.2. Langilea langabezia egoeran badago.

1.3. Enpresariaren kasuan %40 baino handiagoa den diru-sarreraren galera sufritzen badu.

2. Alokairuei dagokionez, ordainketen atzeratzea agintzeko aukera baztertu du, maizterra, bankua izan ordez, hiritarra delako. Beraz, neurririk ez hartzea erabaki da.

Neurri hauek katastrofikoak izan daitezke proletalgoaren sektore prekarioenentzat. Bankuekiko zorra duten familien kasuan, alarma egoerak dirauen bitartean denbora horrekiko proportzionala den ordaindu beharreko kantitatea atzeratzen da; ez

da, ordea, baliogabetzen. Alokairuaren erregimenaren pean dauden familiek berriz maizterra eta familiaren arteko negoziazioaren bitartezko soluzioak bilatu beharko dituzte, baina beti ere, erabakia jabearen borondatearen eta errentagarritasunaren arabera izango da. Bigarren puntu honetan sartzen dira putre funtsak.

Putre funtsak arazoak dituzten ekonomien zor-rak erosten dituzten arrisku kapitalaren funtsak dira. Gehienetan kiebrarako bidean dauden tituluak erosten dituzte, ondoren zorraren balio osoa kobratu ahal izateko. Bestelako funts espekulatzailen aldean duen bereizgarria da beste funtsak bere egiten duten arriskua handiagoa dela, tendentzia ekonomikoaren arabera baitira. Putre funtsen kasuan berriz, bide judizialeetatik eskuratu ohi dute zorraren balio nominalaren %100.

Higiezinen merkatuan bereziki bi putre funts nabarmenduko lirateke: Lazora eta Blackstone. Azken hau Espainiako Estatuko jabe handiena da; 30.000 etxebizitza ditu. Lazorak, bere baitan duen Azora enpresaren bitartez, Inmobiliaria Vascongadaren 300 etxebizitza erosi zituen duela gutxi Donostian, eta horrek bertako familien alarmak piztu zituen. Izan ere, putre funts hauek alokairuen prezioak modu neurrigabea igo ohi dituzte, erositako higiezinen errentagarritasuna lortze aldera. Alokairuen kasuari dagokionez, beraz, garrantzia berezia hartzen dute.

Alarma egoera dela eta, Lazorak alokairuen ordainketan luzamendu bat, hau da, ordainketen atzeratze bat egingo zuela iragarri zuen. Blackstone-k ere neurri bera hartuko duela ematen du, eta normal bidean, beste funtsak ere bai. Mugimendu honek arrazoi ezberdinak izan ditzake:

Testuinguru honetan berehalako exigentzia legitimo bakarra dago: alokairu zein hipoteken ordainketen zein etxebizitzaren mantenurako eta funtzionamendurako oinarritzko gastuak bertan behera uztea. Errentarik ez badago, ez dago ordainketarik, ez *orain eta ez gero. Eta helburu estrategiko bat, etxebizitza doako eta kalitatezkoa izateko eskubide unibertsala*

1. Legitimitatea: Putre funtsak milaka etxe kale- ratzeren erantzuleak dira, beraz, kolektibo zein instituzio ezberdinek oso markatuta dituzte. Iritzi publikoan eragiteko mugimendu bat izan daiteke. Gainera, litekeena da neurri hau hartu ezean etxe hutsarazteak gauzatu behar izatea, eta horrek are gehiago zikinduko luke beren irudia. Mugimendu horrek iritzi publikoaren aurrean aurpegi zuriketa egiteko balio diezaioke.

2. Errentagarritasuna: Putre funtsek badakite egoera honen aurrean ezer egin ezean irabazirik ez duten familia ugari alokairua ordaintzeari uko egin beharko diotela, eta horrek suposatzen duen prozesu judiziala irekitzeak dituen kostu ekonomikoak handiak dira, alokairuengatik jasotzen dutena baino handiagoak. Ordainketen atzeratzearekin alokairuen %100 kobratuko dute eta kostu prozesal- sak aurreztu.

Krisi testuinguruan hartutako neurri horiek guz- tiek, behin atzeraldia amaitu ostean, aurretiaz exis- titzen ziren etxebizitza ordaintzeko zailtasunak are- agotzea ekarriko dute, eta, horrek honako efektuak izan ditzake proletalgoarengan:

1. Etxe kaleratzeen kopurua handiagotzea eta proletalgoaren aurrezteko ahalmenaren beherakada substantzial bat gertatzea.

2. Familia proletarioen ezinegona handitzea: estres, depresio, eta bestelako patologiak pairatzen dituztenen kopurua handitzea.


3. Familia barruan eman daitezkeen biolentziaz- ko espresioak handitzea. Tratu txar, erailketa zein suizidioen tasek gora egitea.

Salbuespenezko testuinguru honek burgesiaren gobernu-forma demokratikoaren muga logiko guz- tiak gainditu ditu. Kapitalaren tirania azaleratu da.

Zentzu komuna, fenomenoak interpretatzeko mar- ko kognitiboa, arrazionaltasun burges basatiaren eta ongizatearen ideia anakronikoa profetizatzen duen moralismo baita ere burges eta baita ere basa- tiaren artean debatitzen den honetan, beharrezkoa zaigu gizadiaren eskubide unibertsalak mahaigaine- ratuko dituen erreminta politikoa garatzea. Ezin da ulertu erretorika iraultzaile baten baitan alokairuen ordainketen luzapena exigitzen duten programa po- litikoen existentzia, langile klasearen sufrimendua denboran luzatu besterik egiten ez duten neurriak aldarrikatzen dabiltzan neurrian.


Testuinguru honetan berehalako exigentzia le- gitimo bakarra dago: alokairu zein hipoteken or- dainketen zein etxebizitzaren mantenurako eta funtzionamendurako oinarritzko gastuak bertan be- hera uztea. Errentarik ez badago, ez dago ordainke- tarik, *ez orain eta ez gero. Eta helburu estrategiko bat, etxebizitza doako eta kalitatezkoa izateko eskubide unibertsala*, langileriaren programa politikoaren fundamentuetako baten moduan. Jada ez digu balio sozialdemokraziaren ongi-nahi edo ongi-geratu-na- hiak. Langile klaseak pairatzen duen egoera mise- rablea behin betiko gaindituko duen bizitza-forma eta bizitza-antolaketa pentsatzea dagokigu. Langi- leriaren masa zabalak gidatuko duen instituzio po- litikoa. Masa alderdi komunista. /

“Espetxea
etengabeko
borroka bat da,
zure gizatasuna
gogoratzeko eta
zure subjektibitatea
ez galtzeko
borroka, bizitza
adierazpen
minimo-minimo
horretan”



Hamahiru urte giltzapean, zortzi sasi artean. Zenbaezinak diren atakak, estualdiak eta beldurrak, baina baita arnasak, ortzimugak eta euskarri ederrenen agerpena ere. Kontaezinak diren pausoak; itzalpean, argi azpian, bakarrik, taldean, agindutakoak, askeak. Eta horren guztiaren oinarrian, hori guztia ponpatzen, hautu bat. Erabaki bat, gertaera-kate osoa harilkatzen: militantzia politikoa. Bizi-parentesi bortitzak baldintzatu du Zigor Garro (Orereta, 1975) militantearen bizitza: klandestinitateak eta espetxealdiak.

“Ez dut esango erakunde armatu batean militatzea hautu naturala izan zenik. Bi osagai dituen erabakia da: emozionala eta arrazionala”



Hasteko, hitz egiguzu Zigorri buruz. Kontaiguzu nola eta zerk bultzatuta ekin zion ibilbide militanteari.

Familia langile batean jaio nintzen 1975an, Franco hil eta lau egunera. Lau anai-arreba gara guztira. Zortzi urte nituela, Ipar Euskal Herrian errefuxiatu zen aita, eta erbestearen bidea hartu genuen guk ere. GAL indarrean zegoen urte horietan, 1984-1988 artean. Bixente Perurena Peru errefuxiatua izan zen, aitak ihes egitean, aterpea eman zion lehen kidea. GALEk hil zuen 1984an. Horrek guri erakutsi zigun estatua ez dela gu babesteko egitura bat, gu hiltzeko baizik, eta modu drastikoan aldatu

zen nire ibilbide pertsonala.

Ez dut esango erakunde armatu batean militatzea hautu naturala izan zenik. Bi osagai dituen erabakia da: emozionala eta arrazionala. Eta bizi-pen pertsonalak gogorrak izanik ere hautu pertsonala da: badakizu atxilotu eta torturatu eta hil ere egin zaitzaketela, hiltzeraino irits zaitezkeela... hautu gogorra da. Baina erabaki hori hartu nuen sinetsita gure herriaren askatasuna eskuratzeko bidea zela, eta gure komunitatea babesteko ezinbestekoa zela estatuari biolentziaren monopolioa lehiatzea. Nire ustez, hor baziren bi legimititate elkarren aurka: Frantziako eta Espainiako Estatuena bate-

tik, eta gure komunitatearena bestetik. Eta nik nire herriaren aldeko hautua egin nuen.

Horrek eraman ninduen klandestinitatera 1998an. 2006an atxilotu ninduen Frantziako Poliziak, beste bi kiderekin batera: Marina Bernado eta Ekaitz Mendizabal. Hamahiru urtez izan naute giltzapean Frantziako espetxeetan, eta orain, etxean nago preso zigorra amaitu bitartean.

Zure kasuan, beraz, ibilbide militantearen eskutik etorri zen klandestinitatea eta, gerora, kartzela. Dena den, noiz eta nola ezagutu zenuen espetxea?



Zer nolakoa izan zen aurreneko kontaktua kartzelarekin?

Nik 1987an ezagutu nuen espetxea, aita atxilotzean Espainiako Poliziaren esku utzi zuelako Frantziar Poliziak. Aitari bisitak egitean ezagutu nituen kartzela, eta horren aurretik Polizia ezagutu nuen, etxera sartu eta aita eraman zutenean. Nire gaztaro guztian izan da borrokaren sinbolo bat kartzela, eta uste dut belaunaldi oso batentzako izan dela hala. Espetxea izan da militante politikoei bizi eta jasan behar izan dugun fase bat, borrokatzeak ekartzen zuena, eta guk, borrokaren sinbolo modura ikusten genuen.

Ni 2006ko abenduaren 3an sartu ninduten Paris inguruko Fresnes kartzelan. Oso presondegi zaharra da, handia eta beldurgarria. *Divina comedia* liburuan bada esaldi bat, “gal itzazue zuen itxaropenak”. Goiburu hura ikusi nuen bertan sartzean. Aldi berean, klandestinitatetik nentorren ni; askatasunaren paroxismoa da sasia, zure arauekin bizi zara. Askatasun totala, ordea, ez da existitzen, beti baikau-de jendeari edo egoerei lotuta, beti dauzkagu kateak. Baina askatasun egoeratik gehien hurbiltzen den egoera borroka da, askatasuna borrokan dago. Sasiak dira niretzako horren enkarnazio gordin eta biziena.

Berez, bultzada handiarekin sartu nintzen kartzelara. Sartzen zaren

“Zure gorputza gatibu dago eta zure gogoa paroxismo horretan; kontraste horrek eragiten duen sufrimendua oso bizia da”

unean zure gorputza kartzelan dago, baina zu ez zaude kartzelan. Nire gorputza lehen egunean ziegan ikusi nuen kanpoan zegoen nire gogoa, sasi-tan. Zure gorputza gatibu dago eta zure gogoa paroxismo horretan; kontraste horrek eragiten duen sufrimendua oso bizia da. Gogoa kartzelan izaterainoko denbora tarte oso luzea da, nik urteak behar izan nituen. Hasieran, nire aldar-tea zen: “Ni ez nauzue giltzapetuko. Nire gogoa ez duzue giltzapetuko. Ni askea izango naiz. Ziega batean egon arren askea izango naiz, eta horma horiek gaindituko ditut, nola edo ahala”.

Orduan, kanpoan duzun guztiarekin harremana etengabe elikatzen saiatzen zara, gutunak bidaltzen, irudikatzen, amesten. Beste alde batetik sartu nintzen ni kartzelara, instituzio modura duen logikari kontrajarritako logika batean.

Nola oroitzen dituzu giltzapean pasatutako egunak? Zer nolakoa da kartzela?

Oso zaharra da Fresneseko kartzela, eta “oso kartzela” egiturari, atmosferari eta arkitekturari dagokionez. Bertako guztiak esaten dizu, oihuka eta modu gordinetan, kartzela batean zaudela. Handiak dira galeriak, irekiak; eta azpiko solairutik ikusten dituzu solairu guztiak, patimendu osoa, 800 ate inguru, ziega lerro amaigabeak simetria perfektu batean. Giza-erluntz erraldoia. Leihotik begiratzen ere aurreko eraikina nekusan, leiho lerro amaigabeak, eta haien barnean presoak bere egunerokoan. Latza zen baina baita polita ere, bizi guzti haien kontenplazioa. Konpainia egiten zidaten, beleek bezala. Txorakeria dirudi baina beleek konpainia egin didate kartzelaldi osoan.

Egungo kartzelak aseptikoak dira, gehiago dirudite ospitale edo eskola bat. Badago hor itxurakeria bat, zuri-keria bat, ezin eraman dudana. Jasanarazten dizutena gorde nahi balute bezala, ez dezazun argi identifikatu. Presoak telebista du ziegan, ordenagailua, jarduerak. Baldintzak malgutu









NAME
SURNAME
DATE OF BIRTH
DATE OF DEATH
PLACE OF BIRTH
PLACE OF DEATH
RELIGION
MARRIAGE
CHILDREN
PARENTS



dituzte, zigorrak luzatzearekin. Humanizatzearen aitzakiaz, gehiago deshumanizatu dute.

Zein da kartzelan indarrean dagoen ordena edota logika eta nola funtzionatzen du bertan martxan dagoen makineria osoak?

Nik uste dut kartzela ikusi behar dela sistema kapitalistaren erreproduzko miniaturazko bat bezala. Klandestinitatea askatasunaren paroxismoa den modura, sistema kapitalistaren paroxismoa da kartzela. Finean, langile otzanak behar ditu kapitalismoak eta horretarako bitartekoak ditu, eskola batez ere. Eta eskola eta kartzela oso lotuta daude: autoritateari men egin, ordutegiak, planifikazioa, arbitrarietatea, garun garbiketa. Umeak bezatzeko eta langile otzan bilakatzeko instituzioa da eskola. Kartzelaren funtzio soziala eta politikoa, aldiz, behar beste otzandu ez direnak otzantzea da, eta batez ere, mehatxua gorpuztea.

Langile produktibo apala ez izateak



“Nik uste dut kartzela ikusi behar dela sistema kapitalistaren erreproduzko miniaturazko bat bezala. Klandestinitatea askatasunaren paroxismoa den modura, sistema kapitalistaren paroxismoa da kartzela”

eta arauak ez betetzeak ondorio batzuk dituela erakusteko, zigor-sistema bat behar du sistema kapitalistak, ikusgarria eta erreala. Hori guztia ezartzea da kartzelaren funtzioa, ez bergizarteratzea. Gizakiak suntsitzeko egitura erraldoi bat da.

Pertsonak suntsitzea zer da? Pertsonaren subjektibitatea suntsitzea. Subjektibitatea suntsitzeko, subjektibitate hori ukatzetik hasi beharra dago, eta hori da kartzelak egiten duen lehen gauza. Horretarako, zenbaki bat esleitzen dizu, kartzelazainak dituzu eta egiten duten lehen gauza zu biluztea da, eta bigarrena, zu ziega batera “bidaltzea” pakete bat bazina bezala. Korridoreak zeharkatzen hasi eta ziegara iristen zara, eta itxi egiten dute. Une horretatik aurrera biziko duzuna da zure subjektibitatearen ukazio etengabea.

Ez duzu ezertarako eskubiderik; duzun eskubide bakarra itxita egoteko eskubidea da. Kentzen dizutena, batez ere, alteritatea edo bestetasuna da. Alteritatea da gizakia definitzen duena: ni gainontzekoen begiraden arabera naiz, beste pertsonekin egiten ditudan gauzen arabera naiz, besteekin borrokatzen dudanaren arabera naiz. Interakzioa naiz, eta ez banaiz interakzioa, ez naiz ezer. Inguruan aurpegiarik ez badut, zer naizen gogorarazten didan eta onartzen duen subjektibitatearik ez badut, apurka-apurka desegiten da nire

subjektibitatea.

Espetxea, hortaz, etengabeko borroka bat da, zure gizatasuna gogoratzeko eta zure subjektibitatea ez galtzeko borroka, bizitza adierazpen minimo-minimo horretan. Kartzelaren alderik gogorrena ez dira zigor fisikoak, subjektibitate hori lapurtzea baizik. Gizakia abere sozial bat da, eta bere esparru naturaletik, gizartetik, familiaratik atera eta inoren ezleku horretan sartzean, denik eta zigorrik krudelena ezartzen diozu.

Zein mekanismo ditu kartzelak logika hori ezartzeko eta betearazteko?

Gizartean kartzelak jokatzen duen papera zigorra kristalizatzearena da, eta funtzio berdinari erantzuteko baliabideak dituzte espetxean, adibidez, zigor ziegak. Erabat hutsik dauden ziegak dira: iltzatutako altzariak daude, ohe bat, mahai txiki bat, komuna, eta harrikoa. Bertan sartzen zaituzte 10-15 egunez zure buruarekin soilik egon zaitezten; isiltasunak eta bakardadeak jan zaitzaten. Berezikri krudelak eta etsaikorrak dira bertako kartzelazainak, gainera.

Nik maiz ezagutu ditut zigor ziegak, Fresnesen batez ere. Bertan, preso politikoen kolektiboak jarraitzen zuen logika zen kartzela instituzio gisara ukatzea. Gu zigortzeko egitura modura ukatzen genuen, eta orduan, ugariak

ziren konfrontazioak. Zigor ziegetara protesta modura joaten ginen gehienetan, guztiok joanez gero kolapsoa sortzen baikenuen. Presio mekanismo eraginkorra zen, bezatzerako arma garrantzitsuena blokeatzen baikenien; hala, zigor ziega guztiak guk betetzen genituenean, ezin zituzten arauak hausten zituzten gainontzeko presoak zigortu.

Kartzelaren eta euskal preso politikoen artean beti egon da oreka moduko bat: gu eskubideak aldarrikatzen (bisitetarako baldintzak, jarduerak, etab.), eta kartzela, aldarrikapenen anomalia hori neutralizatzen saiatzen.

Oso garrantzitsua da ulertzea pertsona bat kartzelan sartzen dutenean bakarrik dagoela eta oso zaurgarria dela, eta nahi dutena egin dezaketela harekin. Arauetara tolesten ez bada, suntsitu egiten dute. Esaterako, haren bizilekutik urrundu dezakete, gure kasuan modu sistematikoan ikusi den modura.

Kontuan izanda preso dauden pertsonen %99 jende txiroa dela, pertsona bat bizilekutik 800 kilometrorra urruntzen baduzu, badakizu pertsona horrek ez duela bisitarik izango. Eta bisitak dira gutxieneko sostengua; senideek eta lagunek gogorarazten dizute nor zaren, eta maitatua zarela. Norbaiti hori ukatzen badiozu min handia egiten diozu, eta mekanismo hori barra-barra erabiltzen da, preso matxinoak zigortu eta besteei ereduak erakusteko.

Subjektibitatearen ukazio bortitz eta sistematiko horretan, zer nolako harremanak eraikitzen dira espetxean preso dauden pertsonen artean?

Argi esango dut: kartzela ez da lagunak egiteko toki bat. Izanik sistema kapitalistaren paroxismoa, hor bultzatzen eta saritzen dena indibidualismoa da. Gizarte indibidualistan elkarren aurkari bilakatzen gaitu sistemak, eta gauza bera gertatzen da kartzelan. Esaterako, ondokoa salatzea saritzen da espetxean, eta salatariz josita daude presoondegiak. Hori ere bada kartzela: ezin







“Gizakiak dauden tokian elkartasuna dagoelako, eta atakarik zailenetan, gizakia gai delako gauzarik txarrenak zein gauzarik onenak egiteko”

diozu inori konfiantzan ezer kontatu.

Dena den, presoen artean elkartasuna errealitate bat dela ere egia da; sistema kapitalistaren baitan existitzen den modura. Gizakiak dauden tokian elkartasuna dagoelako, eta atakarik zailenetan, gizakia gai delako gauzarik txarrenak zein gauzarik onenak egiteko. Nik elkartasun hori ezagutu dut kartzelan, eta ez soilik preso politikoen kolektiboko kideekin; preso sozialekin ere bai. Esaterako, gertatu da gu zigor ziegetara joan eta preso sozial bat gurekin etortzea, elkartasuna adierazteko edo protesta zilegi eta beharrezko ikusten zuelako.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren kasuan, kartzeletan hainbeste kide egoteak egiten duena da espetxean sartzean kolektibo bat izatea, bakesa edukitzea. Beraz, esango nuke nik ez dudala ezagutu zer den kartzela. Ez dakit zer den kartzela, ez dakidalako zer den kartzelan bakarrik egotea. Beti egon naiz kidez inguratuta.

Modu horretan, kartzelak ezin du zurekin nahi duena egin, ez zaudelako bakarrik, eta talde osoari egin behar diotelako aurre. Hori da anomaliarik handiena. Preso politikoak elkartzan ditu ideal batek, filosofia batek; preso horiek etika batean elkartzan dira. Eta hori oso eredu arriskutsua da kartzelari. Izan ere, gainontzeko presoek ere ikusten dute elkartzuz gero, ezin dutela zurekin nahi dutena egin. Elkartasun horrek gogorarazten dizu etengabe zer zaren; gogorarazten dizu militante politikoa zarela, indarra daukazula, baloreak daukazula, etika eta filosofia jakin bat, hor zaudela borrokalaria zarelako eta borroka hori dela zure izatearen elementu oso garrantzitsu bat, zure identitatearen osagai funtsezko bat. Eta zure izate borrokalaria egunero esperimintatu eta praktikatu dezakezu, eta egiten duzu. Eta horrek mantentzen du zure subjektibitatea, borrokaren praktikak.

Gaur egun, zure etxean ari zara ezarritako espetxe zigorra betetzen.

Egun ere preso jarraitzen dut, baina etxean. Bistan denez, ez da gauza bera; finean, kartzelan egotea ez baita soilik toki batean itxita egotea. Zu zure etxe-ko komunean giltzapetzen bazara ez zaude preso. Hortaz, preso jarraitzen dut nolabait, baina ez nago preso. Hori esatea espetxean preso daudenak iraintzea litzateke. Eurek bizirauten jarraitzen dute, borroka batean, sufrimendu batean. Ni ordea bizitzen ari naiz, nire ingurua berreskuratu dut, familia, lagun zahar eta berriak, katuak, itsasoa, espazio irekiak. Esnatu eta aukera profusio batean aurrean aurkitzen naiz, ez dakit zer datorkidan. Kartzelan bai, egunero dakizu zer gertatuko den. Ez dago ezustekorik. Bizi zara bizi-parentesi moduko batean.

Jendea egunero ikusten dut nik. Ez dakigu gizakiari nondik datorkion bizitzeko bultzada, baina nire teoria da bizitzeko grina beste gizakietatik datorkigula, loturetatik. Kartzelan lotura horiek hain dira urriak, zimeldu egiten zarela, zuhaitzari ura eta eguzkia ukatuta zimeltzen den modu berean.

Sarri hitz egiten da espetxe politika jakin baten zitalkeriaz, egungo espetxe politika aldatzeko aldarriz blaituta. Kartzela, baina, eraldatu daiteke? Edo abolizioaz hitz egin behar genuke?

Kartzela abolitu egin behar da, inolako zalantzarik gabe. Kartzelak ez dauka inolako zentzu “positiborik”, sistema kapitalistaren kristalizazio hutsa da. Sistemaren baloreen eroalea da eta eraitsi egin behar da sistemarekin batera. Ez dugu suntsituko kartzela sistema suntsitu gabe, hori agerikoa da. /

IKUSPUNTUA

**Maddi
Sarasua**



INDUSTRIA KULTURALA

**Adorno eta Horkheimer-i zor diegu
industria kulturalaren kontzeptua.
Ikuspuntu honetan, autore horien
lanak oinarri harturik, gaur egun
hegemonikoa zaigun ekoizpen
kulturalaren formaren analisirako
balio lezaketen zenbait puntu
azaltzen saiatuko naiz.**

Fenomeno ekonomikoen ondorio bezala ulertu behar dugu industria kulturala; kapitala emendatzeko aukera berri bat den heinean garatu baita. Industria deritzonengan, Adorno ez da hertsiki ekoizpen prozesuaz ari, estandarizazioa eta banaketa tekniken arrazionalizazioa ere barne biltzen ditu.

Nolako kultur ekoizpena suposatzen du prozesu industrialak? Sorpresa handirik ez, merkantzia den kultur ekoizpena da bilatzen duena. Industriaren merkantzia kulturalak horien komertzializazioaren printzipioaren baitan doitzen dira, eta ez horien eduki propioa eta eraikuntza zehatzean. Horretarako, industria kulturalak milaka pertsonen kontzientzia- eta inkontzientzia-maila kontuan hartzen ditu. Baina masak kalkulu elementu dira; kontsumitzailea ez da industria kulturalaren subjektu, objektu baizik. Industria kulturalak plan bat dauka bere adar guzietan. Bertan, produktuak masek kontsumitzeko ikertuak dira, eta ondotik produktu horiek determinatuko dute masen kontsumoa bera, industria kulturalak kontsumitzaileen beharrak eta desirak sustatu, norabidetu eta diziplinatzen duen gaitasunari esker.

Masak ez dira neurgailu soil, industria kulturalaren ideologia dira, nahiz honek ezin duen egokitu

gabe existitu. Industria kulturalak etengabe du masa ikergai, haren jarrera azkartu eta berresteko, *a priori* datu aldagaitz gisan hartzen duena. Bezerearen xerka doa, haren oniritzi osoa eta erreparorik gabea saltzera, den bezalako munduaren aldarria egitera.

Arte obretatik industria kulturalera, kontzeptu teknikoaren aldaketa ematen da. Arte obran, teknika antolaketa immanenteari eta bere barne-logikari dagokio eta banaketa teknikak eta erreproduktzio mekanikoak objektutik kanpo gelditzen dira. Industria kulturalean, aldiz, azken horiek dira bere euskarri ideologikoaren parte; hortik ateratzen ditu bere produktuetako tekniken ondorioak.

Adornoren hitzetan, industria kulturalaren inperatibo kategorikoak ez du deus komunik askatasunarekin. «Men egin behar diozu» dio, zeri men egin behar diogun zehaztu gabe. Men egitea, dena den, presente dagoenari men egitea da, inertziaz indarrean eta denetan denari. Lehen, artean, mundu errealekiko distantzia bat gorpuzten zen, horretan zetzaten artearen garrantzia eta gaitasuna. Industria kulturalean, identifikazioa eta ohizko asoziazioak bihurtu dira ekoizpen kulturalaren oinarri. Irisgarritasuna da irizpide, helburua saltzea duenarentzat.

Indibidualitateak seriean ekoiztuak dira: niaren

Lehen, artean, mundu errearekiko distantzia bat gorpuzten zen, horretan zetzaten artearen garrantzia eta gaitasuna. Industria kulturalan, identifikazioa eta ohizko asoziazioak bihurtu dira ekoizpen kulturalaren oinarri. Irisgarritasuna da irizpide, helburua saltzea duenarentzat

berezitasuna epe laburreko produktu bat da, gizarteak baldintzatua, naturala bailitzan aurkeztu dena. Indibidualitateak berak ideologia hori indartzeko balio du, kodifikatu eta mediatizatua denak berehalakotasun eta biziaren ilusioa ematen duen heinean. Esfera hori gero eta deshumanizatuago izan, gero eta gehiago egiten du pertsonalitate handien publizitatea.

Ekoizpen kultural hau edo bestea kontsumitzeko aukera ireki zaio biztanleriari, jada, ez kontsumitzea ez da aukera bat, ordea. Produktu gama desberdinak proposatzen ditu industria kulturalak, prototipo eta prezio desberdinetakoak, klasifikaturiko kontsumitzaile desberdinen artean lehia eta hautatzeko aukera elikatuz. Baina eskeleto berdinen jantzi-aldaketa da industria kulturalaren aniztasuna deskribatzeko erabil litekeen metafora.

Aztertu dugu industria kulturalak zein helbururen baitan eta nola funtzionatzen duen. Zer rol jokatzen du, bada, geure gizartean?

Kapitalismo aurreratuan, entretenimendua lanaren luzapena bihurtu da. Arratsaldean lantokitik ateratzen garen unetik hurrengo goizean berriz lantokira heldu arteko tartean, lantokian elikatu behar dugun lan prozesu berarekin osatua dagoen industria kulturalaren funtzioa gizakiaren zentzuak hes-

tea dela diote Adornok eta Horkheimerrek.

Lan egun gogorraren ondotik, deskonektatzearen, aisialdiaren eta eroso kontsumitzearen beharra sartuak zaizkigu. Eta industria kulturalari funtzio hori esleiturik, ez dugu kontzienteki jasotzen hartatik datorkiguna. Distrakzio bidezko harrera garatu dugu ekoizpen kulturalerako.

Eleberri folletoi, pelikula konfeksionatu, telebistako serie eta programa zozoak, horoskopoak, bihotz postak... informazio pobre eta hutsala direla diote batzuek, eskari bati erantzuten diotenez justifikatzen dituzte besteek. Inondik ere ez da gutxieskekoa, ordea, gaur egun dominantea den pentsaeraren eraikuntzan daukaten garrantzia. Industria kulturalak onarpen soziala transmititzen du, izateko modu, jarrera eta hierarkia bat legitimatzen ditu. Izan ere, dibertsioa onarpenaren gainean ematen da.

Industria kulturala niaren estimulatzeko eta esploratzeko datza, eta horixe da aldi berean eragiten duena. Baina frustrazio bat da industria kulturalak saltzen diguna, faltasak erakusten duen zorientasun kutsuan, hainbat arazoak geureak bailiran aurkeztu baitizkigu, gure bizitzetako arazo errealek konpontzeko soluziorik eskaini gabe.

Azkenik, Adornok industria kulturalak kontzientzietan daukan eragin erregresiboa aipatzen du. Izan ere, hartzailea kontsumitzaile huts bihurtzen da; pasibo. Plazerra esfortzurik eza bailitzan, hartzailea norma eta ohikoa denaren haritik eramana da, pentsamendu propiorako lekurik utzi gabe.

Ororen buru, kontzientzia indibidualaren kontrola, monopolio kulturalen partetik, aitzineko garaietako dominazio metodoak baino sotilagoa eta eraginkorragoa izan daiteke. Hala ere, aitzineko garaietan bezala, dominazioaren oinarria ekonomikoa da. Monopolio kulturalak monopolio industrialaren meneko daude. Esaldi honekin bukatzen du Adornok testua: «gizakiak bere garaiko ekoizpen indarrek ahalbidetzen duten adina heldutasun erakutsiko du».

Erran genezake, Adornok eta Horkheimerrek 1947. urtean deskribatutako fenomenoak sakondu besterik ez direla egin gaur egun. Industria kulturala mundializatu eta alor guzietara hedatu da, musikatik zinemara. Aisialdi merkatua mundializazio kulturalaren eskutik doa eta merkatal gizartearen uniformizazioak kontinente guztiak zeharkatu ditu.

Birusak ere, kontinente guztiak zeharkatzeko mehatxua egin digun honetan, etxetik atera ezin, makina bat jende egonen da industria kulturalaren kontsumo inertziari men eginik. Baina hor sumatzen ditut gazte batzuk, presente dagoenaren





Kontzientzia indibidualaren kontrola, monopolio kulturalen partetik, aitzineko garaietako dominazio metodoak baino sotilagoa eta eraginkorragoa izan daiteke. Hala ere, aitzineko garaietan bezala, dominazioaren oinarria ekonomikoa da. Monopolio kulturalak monopolio industrialaren meneko daude

determinazio konkretuak ulertu nahian, normak kontzientziaren aitzinean justifikarazten, analisiez eta dialektikaz. Eta uste dut Adornok transmititu nahi zigun mezua ulertu dutela: konformismoa autonomia eta kontzientziarekin borrokatuko dugu, ordena gizakiaren interes errealekin konfrontatuz.

Argi zeukan hark; ordena abstraktuki goratu beharra, inpotentzia eta oinarri ezaren erakusle dela,

eta objektiboki faltsua dena ezin dela subjektiboki gizakiarentzat egia eta ona izan. Eta argi daukagu geuk ere, langileria autonomoaren formakuntza izan dela gizarte hobe baten aurre baldintza.

Walter Benjaminek hitzei jarraiki, faxismoak praktikatzen duen politikaren estetizazioari, komunismoak artearen politizazioarekin erantzun beharko dio. /

ELKARRIZKETA

Amin Awada

“Ez nintzen
ohitu kartzelan
preso egotera. Inoiz
ez zara horrelako
zerbaitetara ohitzen”

30. Astea

Ez da erraza atzean utzitako bizipenei eta sentsazioei buruzko kronika bat egitea. Alde batera utzitako sentimenduak, baina ez ahaztutakoak. Amin Awadak (izen faltsua) bidaiaria bat gehiago egin du, beste behin, Zaballako kartzelako (Gasteiz, Araba) espetxealdian pilatutako oroitzapenak zeharkatzeko. Bere oroimenean betirako iltzatuta geratuko diren oroitzapen eta sentimenduak.





**Nola gogoratzen duzu
espetxealdia? Nolakoa zen
egunerokotasuna?**

Kartzela batean egotea kaka hutsa da, barkatu esamoldeagatik. Uneoro kontrolatuta zaude, lepokoa eramatea bezala da. Giltzapetuta zaude eta aginduak bete behar dituzu. Ni beti egon naiz errespetu moduluan, beraz, txabola zabalik neukan eta jaitsi eta igo egin nintekeen. Baina, azken finean, kartzela izaten jarraitzen zuen.

Egunak luzeak dira, eta gauza asko nahasten dira, onak zein txarrak. Niretzat, une onak izaten ziren pixka bat deskonektatzea lortzen nuenean. Lagunak ere egin nituen, pertsona batzuei

***“Uneoro kontrolatuta
zaude, lepokoa
eramatea bezala da.
Giltzapetuta zaude eta
aginduak bete behar
dituzu”***

kontatu nizkien nire penak, eta haiek kontatu zizkidaten beraienak. Eta askok esaten zidaten: “Joder, ez itzuli hona”. Eta, tira, batzuetan sentitu dut espetxea zenbait gauza ikasteko lekua ere badela, egia esan.

Baina une txar asko ere baziren, adibidez, esnatzean ohetik altxatu eta neure buruari galdetzen nionean: Baina zer arraio egiten dut nik hemen? Zertan ari naiz hemen? Kartzelan zaudenean, batzuetan, badirudi ez duzula sines ten bertan zaudela. Pertsona aktiboa eta urduria naiz, eta ez nintzen ohitu kartzelan preso egotera. Inoiz ez zara horrelako zerbaitetara ohitzen.

***“Esnatzean ohetik altxatu eta neure
buruari galdetzen nione: Baina zer
arraio egiten dut nik hemen?”***

**Zuk diozun bezain esperientzia
gogorra izanik, nola lortu
zenuen espetxealdiari aurre
egitea? Zein helduleku
zenituen aurrera jarraitzeko?**

Espetxeko egonaldia eraman nahi duzun eta aurre egin nahi diozun moduaren arabera ere bada. Esate baterako, nik kartzela barruan lan egiten duen jendea ezagutu dut, eta egun osoa ematen dute lanean. Baina espetxean sartzean egin dezakezun gauzarik onena ahaztea da; kanpoan dituzun gauza onak ahaztea, batez ere. Izan ere, gauza horietan pentsatzen baduzu, behera etortzen zara. Kanpoan duzun guztitik deskonektatzen saiatu behar duzu,

baztertu, isolatu, sentimenduak alde batera utzi. Eta espetxeko leihotik begiratzen hasiz gero... Are zailagoa da. Nire leihotik Gasteiz ikusten zen, kalea ikusten zen pixka bat, autoak.

Jende asko behera etortzen da kartzelan, eta piluletara edo bestelako substantzietara jotzen du. Espetxea mundu bat da, eta hor ikusten dena mundu oso bat da. Gerta daiteke norbait itota sentitzea eta pilula bat hartzea, eta gero beste bat, eta azkenean hiltzea. Eta hori gertatzen denean esaten dute: “Gaindosi bat izan da”. Baina hori gezurra da.

Kartzela batean ikusi dudan gogorrena da pertsona bat preso sartzen

denean lasaitzeko pilula bat eskaintzen diotela. Nik ez dut inoiz hartu, baina badira botikak hartzen dituzten pertsonak: egoera onean sartzen dira, familia apal eta langilekoak dira, eta bat-batean kartzelan pilulak ematen dizkiete, botikak, lasai egon daitezen. Pilula bat bestearen atzetik. Eta bat-batean zombiak dirudite, eta horrela geratzen dira. Horrekin, lortzen duten gauza bakarra pertsona horri eta bere familiari bizitza izorratzea da. Hori beti gertatu izan da kartzelan. Animoak jaistea oso ohikoa da, eta hori da batzuek duten irtenbidea horri guztiari eta arazoei aurre egiteko.

Zure ustez, nola eragiten

***“Bat-batean kartzelan pilulak ematen
dizkiete, botikak, lasai egon daitezen.
Pilula bat bestearen atzetik”***

**dio pertsona bati espetxean preso egoteak?**

Nik, Jainkoari eskerrak, denbora gutxi pasatu dut kartzelan: urtebete baino gutxiago. Eta, hala ere, bizitza aldatu zait. Espetxeak bizitza osoa aldatzen dizu. Elkarriketa askoren bidez konta dezakezun esperientzia da, eta, hala ere, esperientzia bizitzen ez duenak ezingo du sekula ulertu. Eta eskerrak nik ez nituen urteak eman hor, zeren kartzelan bazegoen jendea aurpegira begiratzen niona, eta... Ezin da azaldu. Urte batzuetarako giltzapetu banindute erotu egingo nintzateke, egia esan. Benetan zaila da.

Delitu arin batzuegatik espetxera-

tu ninduten, hain zuzen, nire bizitzan gauza garrantzitsuak eraikitzen ari nintzenean. Eta bat-batean, kartzelan sartu behar izan nuen. Hori guztia moztu. Dena aldatu zen. Pertsona bati askatasuna kentzen badiozu, nahiz eta egun batzuk izan, ordu batzuk... Oso gogorra da.

Nahiko laster lortu nuen hirugarren graduan sartzea, baina hori ere zaila izan zen. Izan ere, zenbat eta denbora gehiago pasatu kartzelatik kanpo, orduan eta gehiago kostatzen zitzaidan hara itzultzea, eta gehiago irten nahi nuen. Atera ahal nuenean jendearekin egoten nintzen, eta askok ez zekiten espetxeratuta nengoenik, hirugarren

graduan.

Baina, egia esan, uste dut espetxeratutako pertsona asko hobeto daudela kartzelan hortik kanpo baino: ateratzen direnean zonbien modukoak dira. /



IKUSPUNTUA

Martin
Goitiandia



ZERGATIK IKASLE GREBA?

Martxoaren 26rako Ikasle Abertzaleak antolakundeak deitua zuen ikasle greba bertan behera geratu da. Aurpegi zurbil asko ikusi ditut egun hauetan, greba indartzeko horrenbeste lan egin ondoren ezingo dituelako behar bezalako fruituak eman, baina guk ez dugu egun jakin batean jende asko kalera ateratzeko soilik lan egiten, ez horixe! Greba honen lema «*Tasak merketu, bekak hobetu*» zen, eta ez bata ez bestea lortu ez direnez, egindako lanari jarraipena eman behar diogu. Nik behintzat ez dut horren erraz amore ematen, beraz Koronabirusaren “monotema” horretaz aspertuta dagoenak hau irakur dezake. Izan ere, uneren batean borroka berriro hartu beharko dugu, ez izan zalantzarik. Greba hau UIB eragileak beka eta tasen inguruan egindako bost aldarrikapenetan oinarrituta deitu zen. Argitu dezagun zergatik babestu behar den borroka hau galderaka:

ZER DA UIB?

UIB (Unibertsitateko Indar Batasuna) EHU eta NUPen (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) antolatzen den eragilea da. Haren jarduna honela laburtu daiteke: unibertsitateko langile klaseko sektore ezberdinak (ikasleak, garbitzaileak, ikerlariak...) programa baten baitan organikoki batzea. Hau da, denak UIBren baitan antolatzea haren programa unibertsitatean betearazteko, eta, modu horretan, haren borrokak aurrera eramateko (ikasketa kostuak murriztea, hitzarmen hobea lortzea, EPIF ezartzea...). Jardun horren baitan, lauhileko honen hasieran UIBk tasen eta beken auzian lehentasunez aldatu beharreko bost puntu finkatu zituen. UIBren programa, funtsean, unibertsitateko langile klasearen kontrolpean eta bere interesera jartzea inplikatzeko duen maximoen programa bat da: doako hezkuntza, soldata berdintasuna, lan-banaketa sexualaren



Etorkizunean lan egingo dugun enpresa edo lantegiaren jabe den horrek (kapitalistak) beharrezkoa du guk kimika, kontabilitatea, diseinu grafikoa, filologia edo dena delakoa ikastea, etorkizun horretan beretzat produktiboak izateko. Hori horrela izanik, ze zentzu du formakuntza hori geuk ordaintzeak? Ez al da zentzuzkoagoa kapitalista horrek ordaintzea?

abolizioa... neurri horiek unibertsitatea bere izaera burgesaren mugetara eramaten dute, unibertsitateak programa hori betetzeak kapitalaren interesei men ez egitea inplikatzeko baitu.

ZERGATIK DOAKO HEZKUNTZA?

Aipatutako programa honen puntuetako bat da, esan bezala, doako hezkuntzarena. Jasotzen dugun hezkuntzak kapitalarentzako langile moduan formatzen gaitu. Horrek esan nahi du etorkizunean lan egingo dugun enpresaren edo lantegiaren jabe den horrek (kapitalistak) beharrezkoa duela guk kimika, kontabilitatea, diseinu grafikoa, filologia edo dena delakoa ikastea, etorkizun horretan beretzat produktiboak izateko. Hori horrela izanik, zer zentzu du formakuntza hori geuk ordaintzeak? Ez al da zentzuzkoagoa kapitalista horrek ordaintzea? Geure gurasoek orduak pasatzen dituzte kapitalarentzat

lanean, eta, gainera, irabazten duten soldataren zati gero eta handiagoa bideratu behar dute beren seme-alabok etorkizuneko langile izateko prestatzeko. Baita zera ere! Hezkuntza hori haiek ordaintzera behartuko ditugu. Beka gehiago eta handiagoak ordaintzeko dirurik ez dagoela? Tasak jaisten badira unibertsitatea finantzatzetik ez dagoela? Lasai, kapitalaren jabe diren burges horiek diru pila dute eta.

ZER DIRA UIBREN BOST PUNTU HORIEK?

Sinplea da: doako hezkuntzara bidean (aurreko galderan esan bezala) bekak hobetu eta tasak merketu behar dira, eta helburu horren baitan lehen neurri bezala UIBk bost puntu hauek finkatzen ditu. Azken urteetako tasen garestitzea gelditzea eta merketzen hastea da horietako lehenengoa; NUPen bereziki, EHU baino askoz ere garestiagoak dira eta. Bigarrena, gaingiditzen ez diren irakasgaietan berri-

Gure lorpenak indar kontu hutsa dira. Esan nahi dut ezin dela langile klasearen interesera dauden neurriak klaseen arteko eztabaida sano eta elkar-ulertzearen bidez aplikatu. Hobekuntza material horiek inposatu egin behar zaizkio burgesiari; indar korrelazioan geure aldea indartzen den heinean ezarriko ditugu hobekuntza horiek

ro matrikulatzera behartzen duten arauak deuseztatzea da. Arau horien ondorioz gainditu ez den irakasgaian bai ala bai matrikulatu behar da hurrengo ikasturtean, matrikula bakoitza aurrekoa baino garestiago ordainduz (NUP dugu berriro ere adibiderik latzena, matrikula batetik besterako prezioa bikoizten baita). Beste hirurak bekei dagozkienak dira. Bata errendimendu akademikoekin amaitzea da: beka jasotzeko kreditu kopuru bat gainditu beharrak bekak presio mekanismo bihurtzen ditu. Bestea kreditu kopuru minimo batean matrikulatzea beka jasotzeko baldintza izateari uztea da (ikasketak lana bezalako beste betebeharrekin bateratu nahi dituen kanporatuz). Azkena, graduz aldatzeko kasuan beka ez emateko araua kentzea da. Arau horren ondorioz beka jasotzen den gradu bat utzi eta beste bat hasten bada, urte kopuru berean ez da jasoko beka. Honek guztiak ez du esan nahi grebarekin bost horiek bai ala bai lortu nahi zirenik, ezta gure borroka puntu horietara soilik mugatu behar denik ere. Ezin ditugu ahaztu, adibidez, gero eta alokairu garestiagoak ordaintzeko bekak ez direla nahikoak, ez eta garraio kostu gutxi batzuk soilik ordaintzen dituen garraio bekak ere. Greba prozesu politiko orokorrako baten baitan ulertu behar dugu.

ZER LORTUKO DUGU GREBEN BIDEZ?

Greba ez da helburua bere horretan, greba bi-tarteko bat da. UIBren maximoen programa egikaritzetik lehentasunezko bost neurri zehatz horiek ezartzeraino, gure lorpenak indar kontu hutsa dira. Esan nahi dut ezin dela langile klasearen interesera dauden neurriak klaseen arteko eztabaida sano eta elkar-ulertzearen bidez ezarri. Hobekuntza material horiek inposatu egin behar zaizkio burgesiari; in-

dar korrelazioan geure aldea indartzen den heinean aplikatuko ditugu hobekuntza horiek. Aldaketa txikiak indar txikia dugunean, eta aldaketa handiagoak indar handiagoa dugunean. Indar aritmetika sinplea da. Horrek esan nahi du grebaren helburua tasen eta beken auzian aurrerapauso bat ematea dela, ez nahitaez bost puntu horiek betetzea (hori gure indarraren arabera emango da epe laburrago edo luzeago batean). Grebak auzi hau itzalpetik atera eta mahai gainean jarriko du: nor dago tasak merketu eta bekak hobetzearen aurka? Lor dezagun, grebarekin, horren aurka dagoenak argi esan dezan. Jada ez dute balioko «aldarrikapenekin ados nago, baina...» bezalako formulek, gure alde edo gure aurka agertu beharko da.

Ondo dakigu auzi honen inguruan indar korrelazioa aldatzen hasten garen unean bertan «ez dago dirurik» bezalako mila aitzakia sortuko direla. Unibertsitateko kide gisa «unibertsitatearekiko dugun ardura eta betebeharrak» horretaz hitz egingo digute, harrotzen ditugun hautsak baretzeko. Baina ez, ez diogu ezer zor unibertsitate honi, ez Eusko Jaur-laritzari ez burgesiaren beste edozein instituziori ere. Garbitzaileek beren hitzarmena lortzeko unibertsitatea hankaz gora jarri behar bada egingo dugu, eta doako hezkuntza lortzeko kapitalari diru guztia kendu behar badiogu, kenduko diogu. Aldaketa hauek lortzea ala ez lortzea beraz, ez da lehentasun kontua, indar kontua baizik. Indar hori lortzera bidean martxoaren 26koa bezalako hitzordu pila izango ditugu. Beraz, hurrengo greba iristen denean inork ez dezala galdegin greba zergatik egin, zergatik ez egin baizik. /

IKUSPUNTUA

Paul
Beitia



GUREA EZ DEN GURE HIZKUNTZA HAU

Bertolt Brechtek bere garai hitsez zioenak baliu digu guri ere: barre egiten duenak, zioen, ez ditu oraindik jaso albiste izugarriak. Euskal oasia deitzen dioten elkarbitzitzaren eta bakearen teatro honetan, badirudi dena doala ondo, batez ere mezu lasaigarrien azpian azterka ez dabilenarentzat. Euskararekin ere antzeko gertatzen da: diskurtso optimistak eta lasaigarriak sinets ditzakezu, baina hor etorriko zaizu saihetsezinki errealitatea belarrondokoa ematera. Alegia, euskararen inguruko datu eta abarrekin irribarre egiten duenak, ez du oraindik jaso haren egoera izugarriaren berri. Berri lazgarri horietako azkenetarik bat Iruñetik etorri zaigu joan den hilabetea: Iruñeko Udalak lehendik ere murrizta zen euskarazko haur eskolen eskaintza murriztuko duela adierazi zuen. Hurrengo egunean, jakina, ehunka lagunek egin zuten protesta, euskarazko hezkuntzaren defentsan, baina erabakiak bere horretan jarraituko duela dirudi. Euskararen bazterketa estrukturalaren adibide askotarik bat da Iruñekoa. Lasaitasunaren eta egonkortasunaren diskurtsoaren atzean, hain zuzen, arazo estruktural horixe dago.

Datuek erakusten digute tendentzia orokorra: arnagune deituriko herri euskaldunetan behera doa euskararen erabilera eta hirigune handietako egoera oso urruti dago egonkortzetik. Irudi orokorra, aldiz, ondotxo dakigu zein den, datuei begiratu beharrik gabe: jende gehienaren bizitzetan erro sendorik ez duen hizkuntza da gurea, arnasketa artifizialez bizi dena, edozein unetan norbaitek politikoki zuzena dena ahaztu eta hiltzen utz lezakeena. Eta hortxe dago gakoa, hain zuzen: gure hizkuntza ez dela gurea, ez dugula guk haren gaineko kontrol errealik. Kapitalak nahinola darabiltza gure bizitzak, nahi-

nola moldatzen eta aldarazten gaitu eta, nahiz eta gehiegitan ahaztu, hizkuntza –eta gure kasuan euskara– ere halaxe darabil, bere menara. Hain zuzen, hortik abiatutako ideia batzuk nahi nituzke mahai-gaineratu artikulu laburregi honetan: euskararen egoera ez dagoela inola ere kapitalaren dinamika-tik kanpo eta, zentzu horretan, alferrik dabiltzala hori kontuan hartzen ez duten hizkuntz politikak.

Euskararen kontzepzio desklasatu bat jaso dugu oinordetzan. Akademia euskaldunarentzat eta euskalgintza militantearentzat klaseak eta euskarak ez daukate inolako zerikusirik ez bada deskribapen soziolinguistikoetan: generoari edo adinari lotutakoak bezala, erosahaltenari lotutako hizkuntzaren azterketak ere egin izan dira, baina klaseari ez zaio berebiziko garrantzirik eman, beste aldagai deskriptibo baten gisara izan da hartua klasea euskararen azterketan. Ez dugu alferrik esaten, ordea, kapitalak bere akumulazioaren mesederako moldatzen dituela gure bizitzen aspektu guztiak. Euskararen egungo egoera makurraren arrazoia gehiegitan bilatu izan da auzi ideologiko eta identitarioetan eta gehiegitan ahaztu izan zaigu haren erro ekonomikoa. Kapitalari, zirkulazio merkantilerako, dibertsitate linguistikoa traba huts zaio, lurzoru komunikatiboak homogeneous eta egonkorra behar du merkantzien elkartruke ahalik errazenerako, eta euskarak ezin dio horretan askorik lagundu. Aitor Bizkarrak trenbideei eta hizkuntzei buruzko bere artikuluan zioena gogora ekartzeko, «esango nuke lehenbiziko gainbegiradan euskararen izaera eta kapitalaren logika ez datozela bat: idealki espantsio mugagabea xede duen logika ekonomiko batek eta geroago eta hirtun espontaneo gutxiago dauzkan hizkuntza gutxitu batek ez dirudite, a priori, oso

Paul Beitia





bateragarriak».

Ezinbestekoa da dominazio kapitalista ulertzea, beraz, euskararen egungo egoera ulertu nahi bada eta, ondorioz, akademia despolitizatuari iruditzen zaiona baino dezente gertuago daude klasea eta euskara. Euskalgintzak gaur egun dituen intuizio eta kezka nagusienek nahiko argi uzten dute hori, nik uste. Hiru dira nik hemen labur azaldu nahi nituzkeenak: gaur egun euskararen atxikimendua klase ertainarekin lotzen duen intuizioa, euskararen presentzia urria langile-klasearen kapa proletarizatu- tuenetan eta elite ekonomikoak eta enpresa-mun- dua euskaldundu beharra. Guztiek azalerazten dute klase-konposizioaren eta hizkuntz erabileraren ar- teko harremana, baina egungo euskalgintzak haiei aurre egiteko duen ezintasuna ere erakusten dute.

Lehenbiziko intuizioa, klase ertainari loturikoa, Soziolinguistika Klusterrak eginiko azterketak erakusten du ondoen. Berriki aurkeztutako azter- ketak erakusten du, biztanleen errentaren eta hiz- kuntzaren arteko lotura eginda, klase ertaina dela euskarari lotuen dagoen giza taldea. Klusterrak, halaber, «aukera» gisa ikusten du egoera, giza tal- de hori delako «jendetsuena». Baliotsua zaigu az- terketa hori oso, baina ondoren egiten den datuen balorazioak argi erakusten digu analisi materialista baten falta: krisi kapitalista garaian, proletarizazio prozesu baten eta klase ertainaren polarizazioaren erdian, klase ertaina euskararen eramale izatea «aukera» gisa ikustea, gutxienez arduragabekeria da. Ez da hori bakarrik, gainera: klase ertainaren paktu soziala politikoki gorpuzten duen Ongizate Estatuaren pixkanakako desintegrazioa ere badakar krisiak, eta harekin euskararen berme instituzio- nalen balizko galera. Horrek garamatza bigarren

**Ezinbestekoa da
dominazio kapitalista
ulertzea, beraz,
euskararen egungo
egoera ulertu nahi bada
eta, ondorioz akademia
despolitizatuari iruditzen
zaiona baino dezente
gertuago daude klasea
eta euskara**



kekara: euskararen presentzia urria langileriaren kapa proletarizatuenetan. Euskararen biziraupenerako bermeak klase ertainaren politiketan oinarritu izanak –zeinak langileriaren goi-kapen bizi-baldintzak mantentzea baitu helburu– gauza asko esan nahi ditu, baina batez ere esan nahi du proletalgoa proiektu horretatik sistematikoki kanporatua izan dela. Hortik ulertu behar ditugu, esaterako, Euskal Herriko proletalgoaren zati handi batek euskararekiko duen atxikimendu falta eta eskoletako klase-segregazio larria. Azkenik, enpresa-mundua euskaldundu beharrek dago tematurik euskalgintza azkenaldian, eta hala jarraituko du pixka batean, nik uste. Badirudi aurtengo Euskaraldian ere aha-lerin berezia egingo dela enpresetako dinamika eta, beraz, elite ekonomikoak euskalduntzearekin. Hau ere disparate politiko bat da, nire iritziz, klaseari

dagokion obserbazio bat eginik ere ez duelako klase-interesen gaineko azterketa txikiena ere egiten. Aurrez azaldu dugun bezala, burgesiari euskarak ez dio zipitzik ere axola etekin metaketarako ez bada, Aldundiek eta Jaurlaritzak urtero euskarazko diru-laguntzetara bideratzen dituzten milaka euroak ez badira, esaterako.

Labur azaltzen saiatu naiz nola gaurko euskalgintzaren intuizio eta kezka nagusiak gizartearen klase-konposizioarekin dauden lotuta. Jakina, askoz gehiago luza gintezkeen eta luzatu beharko genuke, benetan auzi horien azterketa serio bat egin nahi badugu. Hala ere, azalpenek argi uzten dute gaurko euskalgintzak aipatutako arazoei aurre egiteko duen ezintasuna, horrela jarraituko duena, bide batez, hizkuntz politikak analisi materialista serio batean oinarritzen ez dituen bitartean. Op-



Optika komunista batetik, dagoeneko erabili izan den slogan hark, «iraultzak soilik salba dezake euskara» dioenak, ez dirudi halako ergelkeria

tika komunista batetik, ordea, azalpenak benetan argi uzten duena zera da: gure hizkuntza ez dela gurea, ez dugula harengan kontrol errealik. Ikuspuntu horren argitan, dagoeneko erabili izan den slogan hark, «iraultzak soilik salba dezake euskara» dioenak, ez dirudi halako ergelkeria. Slogana zena hipotesi bilakatzen da horrela. Botere proletarioaren eraikuntzak soilik salba dezake, salbatzeko-

tan, euskara; dominazio kapitalistak kentzen digun ororen gaineko kontrolak, erlazio sozialen gaineko kontrolak. /



ERREPORTAJEA

Espetxea, politika hiltzailea

*Mila atrakatzaille diru beharrean
Baino lapurrago da, oharkabea,
Banku bat lanean.*

— GOSARIAK —

Amaitu omen zen historia eta amaitu omen ziren esklabotza-aren garaiak ere. Espetxeak *zaborte*gi eta mundua *panoptiko* bihurtu duen kapitalismo honetan, ordea, inoiz baino ageriago dago gezur horien neurria. Zer esanik ez lerrook idazterako orduan, salbuespen egoera global honetan. Baina bestela ere aski da, adibidez, *Espetxe* instituzioari begiratu bat ematea. **“Askatasunaren herrialdea” da (AEB) munduan batezbeste preso populazio handiena duena.** Hango 1.700 presondegiak batean jarriko bagenitu, laugarren hiririk handiena litza-teke “hiri” hori, New Yorken, Los Angelesen eta Chicagoren atzetik. Azken 40 urteetan %500 hazi den 2,3 milioi pertsonaz osatutako *azpi-gizarte* bat¹. Zertarako, ordea? Zer funtzio du espetxeak sistema kapitalistan?

Bere ekoizpen modua gizartean inposatu duen klase sozial dominanteak bere nagusitasun historikoa bermatzea da, funtsean, **zuzenbide burgesaren egitekoa**. Espetxea, zehazki, feudalismo ondorengo langile “librea” diziplinatze eratu zen, eta kapitalismoaren garapenarekin, *proletarioaren kontrol terrorista* ezartzeko funtzio politikoa betetzeko instituzio bilakatu da. Biztanleriarekiko batezbestekoa AEBetan baino baxuagoa da Europar Batasuneko herrialdeetan, baina helburu eta izaera kriminal bera dago atzean, beste egitura ugarirekin batera. Batezbeste, astero hiru preso erailtzen dituzte Espainiako Estatuko kartzeletan, eta Europako inguruko estatuetan estatistika ez da baxuagoa. Osasun-arreta berez eskasa bada, esanguratsua da, adibidez, espetxeetako osasungintzako plazen %30 bete gabe egotea².

Espetxearen eta gizarte egituren arteko lotura horixe da gaur egungo “askatasuna desjabetzeko zigorraren” paradoxa. Leku itxiak dira kartzelak, “gizarte libretik” bereizia eta bakar-tua da preso, baina bereizketa hori itxurazkoa da erreala baino gehiago, moralismo eta ideologia burgesez mo-zorrotua. Delitugilea modu indibidual eta “boluntarioan” da delitugile -inoiz

Espetxea ez da gizarte kapitalistan ezarri nahi diren edo dagoeneko existitzen diren eredu ekonomiko eta sozialen isla besterik -eta, alderantziz, espetxekoaren antza gero eta handiagoa du askorentzat “kanpoko” bizimoduak, humanitate oroz desjabetuta-

ez ekonomikoki eta sozialki determinatuta-, baina klasismo kirats nabarmena darion *justizia* ezartzen zaio. Izan ere, espetxea ez da gizarte kapitalistan ezarri nahi diren edo dagoeneko existitzen diren eredu ekonomiko eta sozialen isla besterik -eta, alderantziz, espetxekoaren antza gero eta handiagoa du askorentzat “kanpoko” bizimoduak, humanitate oroz desjabetuta-.

Gizarte “libreak” bezala, bere arauak, sailkapenak, ordutegiak, tramineak, figura diziplinatzaileak, bere sariak eta bere zigorrak ditu espetxeak ere. Burgesiaren *politika hiltzaile orokorraren* zerbitzura jarritako *politika hiltzaile* bat gehiago da, bere gezurra

“birgizarteratze laboral eta sozialaren” mitoan eta bere izaera kriminala “heriotza naturaletan” esplizitatzen duena. Egotekotan, sisteman baino, biziraupen baldintzetan eta *erailketen* estatistike-tan dago diferentzia: Espainiako Estatuan, kanpoan baino bost bider handiagoa da suizidio tasa espetxeetan; Frantziakoan, hamar aldiz handiagoa. Guztiarekin ere, espetxean, beste erailketa modu batzuek gain hartzen diete “suizidioei”: “gaixotasunek” eta “droga gaindosiek”³. Agerian geratzen da gezurra, beraz: estatua erabat arduragabea da *bere ardurapera behartu* eta “birgizarteratu” nahi dituen horiekin.

ESPETXEA ETA DISIDENTZIA POLITIKOA: EUSKAL HERRIKO HISTORIA HURBILA

Euskal Herriko historia hurbilean presente dago espetxea, indar handia izan baitu disidentzia politikoa suntsitzeko arma gisara. Espetxe politika zehatz bat ezarri zaie, torturarekin batera; sakabanaketa eta muturreko isolamendua, “borroka antiterroristan” oinarrituta. Sarraskiguneak erresistentziarako lubaki bihurtu dituzte, ordea, hamarkadetan zehar, milaka militantek. Aparteko lanketa behar luke horrek guztiak, baina **datu batzuk** aipatzea ez dago soberan. Euskal Memoria fundazioaren arabera⁴, 1936ko altxamendu frankistaren ondorengo gerra amaitutakoan, 40.000 euskal preso politiko inguru zeuden. Urteek aurrera egin ahala behera egin zuen kopuru horrek, besteak beste, hiru indultu orokor ezarri zituelako Francok. Ez zen erraza izan diktadurako etsipen giroari buelta ematea, baina *gazte ero batzuen ekimenak* borroka lehen lerroa ekarri zuen berriz.


ETA agertzeak eta haren aurkako errepresioak atxiloketa eta espetxeratzeko oldeak ekarri zituen berriz. 1975ean, 632 euskal preso politiko zeuden, Euskal Memoriaren arabera. Sasi-amnistien ondoren, ordea, hustu bezain azkar bete ziren espetxeak berriz. Geroztik, gorabeherak izan ditu preso politiko

Sarraskiguneak erresistentziarako lubaki bihurtu dituzte, ordea, hamarkadetan zehar, milaka militantek

kopuruak, baina argi ikus daiteke estatuak nola erabili nahi izan dituen, une historiko jakinetan, mugimendu osoak higitzeko. Ez da kasualitatera EPPK-ko preso kopuru handienak negoziazio eta su-eten garaietan izatea, adibidez, edo Argeleko negoziazioen hausturaren ondoren ezartzea sakabanaketa politika. **1978tik bertatik hasita, 2008koa da preso politiko kopururik handiena: 755.** Ezker Abertzalea eztabaida estrategikoarekin hastera zihoanekoa, hain zuzen. *Bateragune auzia* jartzen da maiz adibide modura, baina ehunka izan dira garai bertsuan atxilotutako militantek.

Torturarena ere itzal handi bat da sektore militante askotan, eta harago ere bai. Euskal Memoriak 5.655 tortura kasu ditu dokumentatuta 1960ko hamarkadatik, baina jakina da opakutasuna eta inpunitatea direla torturaren ezaugarri behinetakoak, eta beraz, askoz gehiago direla benetan infernu hori sufritu dutenak. Eta sufritzen dutenak. Maiz aurkakoa badirudi ere, **ohartarazi beharra baitago tortura ez dela iraganeko kontua.**

Batetik, forma jakin batean gutxiago gertatu arren (legedi “antiterroristekin”, inkomunikaziopean...), beste esparru eta errealtate askotan ere erabiltzen direlako torturak eta tratatu txarrak. CPDTren azken txostenaren arabera⁵, 2017an 1.014 pertsonak salatu



zuten Espainiako Estatuan tortura edo tratatu txarrak jasan izana -Hego Euskal Herrian, hiruk-. Gehienek, militantzia sozial eta politikoa arekin eta migranteen aurkako errepresioarekin lotuta. Baina tortura ez da iragana, batez ere, **inpunitatea delako tortura sistematiko bihurtzen duena**, eta praktika hori ahalbidetzen duten makineria legal, politikoa eta ideologikoa bere horretan dirautelako, estatuari beharrezko zaionerako. Esanguratsua da, CPD Tren azken urteetako datuak ikusita, M15 mugimenduaren garaian eta Kataluniako Printzipateko gatazka garaietan egondako tratatu txar salaketan gorakada.

Estatuak bahituta jarraitzen duten militanteen borroka bihotzean, **krisi kapitalistaren testuinguruan** argi ikus dezakegu sistemaren kontraesanetan eta klase borrokan zuzenean esku hartzen duela instituzio horrek. Euskal Herrian bertan, modurik gordinenean azalarazten dute biolentzia estruktural hori, esaterako, iazko Zaballako bost erailketek eta otsail amaierako Baionako erailketak.

ESPETXEAREN SORRERAZ ETA GARAPENAZ

Materialismo historikotik, **bi ikuspegitatik aztertu izan dira** nagusiki zuzenbide penala, zigorra eta espetxea (Carolina Prado, 2004)⁶. Batetik, fenomeno historiko-sozial gisara uler liteke zigorra, proletalgoari merkatuaren diktadura ezartzeko, soldatapeko lanerako diziplinatze prozesu modura (Rusche eta Krichheimer; Melossi eta Pavarini...). Bestetik, estatuaren aparatu errepresso eta ideologiko modura, sarreran aipatu bezala, *proletalgoaren kontrol terrorista* ezartzeko funtzio politikoa gisara (Pashukanis, Hay...). Zentzu horretan, funtsezkoa da Foucaulten⁷ ekarpena ere, gizartearen izaera diziplinatzailea nabarmentzeko eta politika punitiboen garapena ulertzeko; exekuzio publiko eta espektakularretatik gorputzaren ekonomiara eta haren erabilera politikora, mendekotasunaren eta beldurraren bidez, gorputza *produktzio indar bilakatze*ko.

Lehena eta bigarrena, helburu produktibista eta delitugilea proletario sumiso gisara birgizarteratzeko xedea, espetxeak biak izan ditu jomugan historikoki

Lehena eta bigarrena, **helburu produktibista eta delitugilea proletario sumiso gisara birgizarteratzeko xedea**, espetxeak biak izan ditu jomugan historikoki, baina garapen kapitalistarekin batera, gehiago bideratu da bigarrenera, Mellossiren eta Pavariniren⁸ esanetan. Edozein modutan, gatazkak funtsean klase sozialen artekoak direla ulertzean datza gakoa: ekoizpen harremanak eta indarrak, eta haiek dakarten egitura soziala ulertzean.

Pashukanisen hitzetan, merkatuak *libre eta berdinen artekotzat* irudikatzen duen “trukearen bariante partikular bat” da **delitua, eta zigorra**, berriz, “biktimak jasandako kaltea ordezkatzeko eta orekatzeko” mekanismoa. Zuzenbidearen klase izaera hori gogoan, Melossik azaltzen du *expiatio* (mendekua) bidez funtzionatzen zuela zigorrak Erdi Aroan; ez zegoen “denboran neurtu zitekeen lanik” (soldatapeko lanik, alegia), eta balio soziala zuen hura kenduz gauzatzen zen mendekua: bizitza, osotasun fisikoa, dirua, estatusa... Zuzenbide kanonikoan, *usque ad correctionem* ziren zigorrak, damutu edo “zuzendu” arteko **penitentzia**, alegia; ez zituzten, ordea, lanera behartzen.

Rusche eta Krichheimerrek (1984) azaldu zuten **Erdi Aroan**, lan-eskua oparao zenean, politika kriminal zorrotzak ezartzen zirela (heriotza zigo-


rrak, anputazioak...), baina ondoren, lan-esku horren beraren eskaria handitzean, politika horixe bera saiatzen zela nolabait “arau-hausleak bizirik mantentzen”. Hor kokatuko litzateke espetxearen sorrera, egile horien ikuspegian⁹. Beti muga argi batekin, noski: espetxeetako lan eta bizi baldintzak beti izan behar dira “gizarte librekoak” baino okerragoak, zigorraren zentzua gal ez dadin.

Erdi Aroko nekazal gizartetik gizarte industrial burgeserako igarobidean, ez dago jada lotura zuzenik esklabu eta jauntxoaren artean. “**Koakzio ekonomiko bidez**” gidatzen da esklabotza berria, eta langile asko “legez kanpo” geratzen dira: bagabundoen, bandidoen garaia da, uzta lapurretena, nekazarien matxinadena. Bi ekoizpen ereduen arteko trantsizio luze horretan, lanaren eskaria eta eskaintza orekatu artean proletalgoak abantailarik har ez dezan, *lan behartuetara* jotzen da.

Bide hori nola egin zuten ikusteko, esanguratsua da **Ingalaterrako adibidea**¹⁰. “Lur guztiak itxi dituzte hesiekin”, kontatzen zuen Thomas Morok (1516) lur komunalen lapurretaz ari zela. Manufaktura berriak ezin zituen nekazari desjabetu horiek hartu kanporatuak ziren erritmo berean: ezin ziren kolpera egokitu egoera berriak ekarritako diziplinara. *Alferkeriaren aurkako legedia odoltsuak* zabaldu ziren mendebaldeko Europan XVI. mendean. Ingalaterrako erregeak Bridewell gaztelua erabiltzea baimendu zuen “eskale, bandido, alper” eta gainerakoak biltzeko eta lanaren eta diziplinaren bidez haiek “erreformatzeko”.

Melossik ohartarazten du, ordea, “delinkuente boluntario gisara” tratatzen zituela legediak: “Suposatzen zuen beren borondate onaren arabera zela dagoeneko existitzen ez ziren baldintza zaharretan lanean jarraitzea”. Indibiduoaren moralaren gain jartzen da erantzukizuna, nolabait, egitura ekonomiko eta sozialak baldintzatutako testuingurutik bereizita.

Puntu honetan, garrantzitsua da ulertzea biziraupenerako, **subsidiarako**





Ingalaterrako erregeak Bridewell gaztelua erabiltzea baimendu zuen “eskale, bandido, alper” eta gainerakoak biltzeko eta lanaren eta diziplinaren bidez haiek “erreformatzeko”

sistema orokorrarekin batera gartzten dela *espetxe* instituzioaren jaiotza. Isabel erreginaren garaiko (XVI) *Poor Law* legearen arabera, esaterako, “pobre inpotenteak” (lanerako ezinduak) mantendu behar zituen sistemak, baina lana bermatu behar zien gainerakoei. Bigarren hori ez zuten lortu; errepresio bideak indartzea baino ez zuen ekarri benetan. Herrialde osora zabaldu ziren “korrekzio etxe” izenekoak. Legez, eta praktikan, langilea behartuta zegoen edozein lan onartzera, “lana ematen zuenak” ezarritako baldintzetan. Lege haren moldaketek 1948ra arte iraun zuten, Asistentziarako Lege Nazionalak ordezkatu zituen arte.

GIZARTE DIZIPLINATZAILERANTZ

Europar, oro har, asistentzia sistema organiko eta zentralizatuekin batera dator hertsatze behartuaren zabalpena, gaur egungo espetxearen logika. Holandan, adibidez, baliabide oroz desjabetuak *Rasphuis* edo *lan-etxe* delakoen bidez behartu zituzten fabrikako diziplinara XVII. mendean. Edo Frantzian, esaterako, *l'Hopital* deiturikoen bidez, XVII. mendearen erdialdetik aurrera orokortzen da hertsatze behartua, gero eta gehiago, lanarekin lotuta baino, hertsatze hutsarekin lotuta, funtzio errepresibo soilarekin. Egoera ulertzeko, adibide esanguratsua da Parisko datua: XVI. mendean,

populazioaren heren bat osatzen zuten *bagabundo* deitutakoek.

Hasieratik gartzten da agerian, ordea, **jabetza pribatuaren eta klase dominanteen hipokresia**. Thomas Münzter teologo alemaniar eta nekazal matxinadetako liderrak, esaterako, halaxe zioen erreforma protestantearen garaian, Lutero aipatuz: “Usurero, lapur eta bandido okerrenak gure printzipeak dira, existitzen den guztiaz jabetzen baitira. Uretako arrainek eta zeruko hegaztiekin, haienak behar dute izan, nonbait (Isaias V). Eta gero, gainera, ez dute lotsarik pobreaki Jainkoaren mandamentuak predikatzeko”.

Gerora, kapitalismoaren garapean, **lotura argiak ikus litezke beste instituzio diziplinatzaile batzuekin ere, Foucaultek sakondutako bide-tik¹¹**. Espetxeak bezala, funtzio horretarako mekanismo errepresibo gisara irakur litezke bestelako hertsatze zentroak ere, psikiatria edo eskola bera, besteak beste. Marra fina da legala eta ilegala bereizten dituen, zer den baimendua eta zer ez, eta gizarte egiturekin batera mugitzen da marra hori, moldatzen du gizartea bera. Helburua, ordea, argia da beti, Foucaulten esanetan: botereari interesatzen zaizkion **jokabideen normalizazioa**. Klase dominanteak *fragmentazio bidez* irabazten du boterea, soilik *baimendutako jokabideak normalizatzen* dituen.



Espetxeak bezala, funtzio horretarako mekanismo errepresibo gisara irakur litezke bestelako hertsatze zentroak ere, psikiatria edo eskola bera, besteak beste. Marra fina da legala eta ilegala bereizten dituen

Historia horrek guztiak zer eman duen ondo deskribatzen du Victor Sergek¹², bere azalean nozitu ondoren. XX. mendearen hasieran, hala definitzen zuen espetxe fantzesa: “Erokeria mekanizatu bat bizi da han (...). Erregimen Zaharreko tradizio penaletan oinarritutako aparatu bati, zigorraren ideia erlijiosoari eta administrazio moderno handien xehetasunari esker lortutako emaitza da (...). Gaizkile eta hondakinak ekoizteko makina hori garesti iriteten da, funtzio erabilgarririk bete gabe. Baina bere generoan, baita bere arkitekturan ere, perfekzio moduko bat eskuratu du (...). **Pertsonak triturtatzeko makina bat da**”.

Espetxearen eta gizartea diziplinatzeko bestelako mekanismoen artean, sarri izan da aztertua **Panoptikoaren ideia**. Pavarinik azaltzen duenez¹³, ingeles burgesia gorakorren ordezkari Jeremy Benthamen proiektu batean du jatorria. 1787koa da lehen proiektua, **behatzte eta bakartze printzipioak** ezarri zituen. Haren helburua zen eraginkortasun produktiboa bilatzeko kontrol sistema punitiboa garatzea. Pavarini: “Panoptikoaren ideia edozein eratako eraikinetan ezar daiteke, edozein eratako pertsonak inspektiopean edukitzeko; zehazki, espetxeak, industria etxeak, *workhouse*-ak, *poorhouse*-ak, manufakturak, manikomioak, lazaretoak, ospitaleak eta eskolak”.

Behatzte printzipioaren arabera, “kriminalarekiko” sistemaren interesa da hura aztertzea, sailkatzea, manipulatzea eta eraldatzea, bizi izan duen errealitate soziala, eta berriz bizi izango duena, aintzat hartu gabe. Kriminalaren figura hori instituzionalizatzen da, delitugilea “espetxeratu” bilaka-

tzeko. Azken batean, “kriminala eraldatzea, eta irudikapen burgesaren arabera desjabetu batek izan behar duen hartara bihurtzea” da xedea.

Bakartzearen bidez, kanpoko sententzio guztiak erauzten zaizkio espetxeratuari; bakarrik sentitzen da bere behar materialen aurrean. *Subjektu abstraktu* bihurtzen da. Aniztasun guztia ezabatzen zaio, *espetxeratu bat* besterik ez da espetxearentzat. Horrela, burujabetza administratiboaren mendeko bihurtzen da erabat, eta suntsipenari eta eromenari ihesbide bakarra uzten zaio: menderatuaren forma morala, hau da, “proletalgoaren forma morala” inposatzen zaio desjabetuari, baldintza existentzial modura. *Burgesiarentzat baino ezin izan ahal izatea*, nolabait esateko.

Horren guztiaren **helburua argia da: proiektu hegemoniko burgesa gauzatzea**. Soldatapeko lanerako diziplinatzea, nork bere beharrak asetzeko medio bakar gisara: desjabetu izatearen “heziketa eta onarpena”. Subjektua behar existentzial hutsera mugatzea, bizi-rauteko irteera bakarra utziz. Garapenak garapen, oinarrian, horixe izan da orain arte espetxearen funtzionamendua, bestelako mekanismo batzuekin batera. Aztertzeakoak dira, esaterako, arkitekturaren garapena, diziiplina instituzionala ezartzeko moduen, denboraren antolamendua, edo nola “lana lortzea” lotzen den sari gisako batekin gero eta gehiago. Espetxearekin sumisoena denak, “ondoan portatzen denak” lortuko du “lanik onena”, **esploatazioa pribilegio modura ikusteraino**.

ONGIZATE ESTATUA ETA BIRGIZARTZERATZEAREN MITOA: PARADIGMA ALDAKETA?

Egitura ekonomiko eta sozialek, eta

kontrol sozialerako klase dominantearen unean uneko helburuek determinatu dute, beraz, espetxearen garapena. Gaur egun, errealitate anitzetan oinarritzen da politika hiltzaile hori: balizko “segurtasun” baten defentsa soziala, delinkuentea “berreskuratzearen eta heztearen” mitoa, zigor punitibo hutsa, mikrokosmo diziplinario idealak...

Badira, ordea, **krisi kapitalista honen testuinguruan garrantzia hartzen duten bi gertakari**, gutxienez. **Krisia bera**, batetik: 2008tik aurrera batez ere, Ongizate Estaturen paradigmen krisia areagotu du Europa mailako proletarizazio prozesuak. Bestetik, **2001eko irailaren 11ko gertakarien ondorena**: pauso atzeraezinak eman dituzte estatu inperialistek gerraren logikan, era guztietako eskubideen murrizketan eta kontrol sozialean, “politika antiterroristen” aitzakian. Frantziako etengabeko salbuespen egoerak adibide argia dira Europan.

Arlo askotan estatuaren “atzera egite” moduko bat gertatu dela dio Pradok, hain juxtu, politika polizial eta penitentziarioetan izan ezik. Parisen, adibide bat ematearren, estatuak hutsik utzitako gizarte zerbitzuetako eraikinak okupatzen ari dira Libiako gerratik ihes egindako langile migranteak, eta estatuaren erantzun bakarra da polizia ejertzito bat bidaltzea haiek bortizki kanporatzera.

Hori guztia ez da *soilik Poliziaren kontu bat*, nolabait esateko. Zenbaitek nabarmendu dute, esaterako, torturaren justifikazioa nola bultzatzen den, gero eta nabarmenago, zineman eta telesailen industrian. Polizia *medio* gisara uler baitaiteke, kapitalaren zerbitzura jarritako biolentziaren monopolio gisara, baina baita **Polizia helburu**

Polizia medio gisara uler baitaiteke, kapitalaren zerbitzura jarritako biolentziaren monopolio gisara, baina baita *Polizia helburu* gisara ere: oro har, jendartean zabaldu beharreko jarrera modura, *hiritar onaren figura* modura

gisara ere: oro har, jendartean zabaldu beharreko jarrera modura, *hiritar onaren figura* modura. Joera horiek indartuta ageri zaizkigu, esaterako, Covid-19 pandemiaren eta haren inguruan eraturako ofentsiba guztiaren harira.

Testuinguru honetan, horrek guztiak espetze sisteman nola eragin dezakeen galdetzen du C. Pradok 2014an aurkeztutako tesian¹⁴. Hau da, “askatasuna desjabetzeko zigorraren auzia” bere testuinguru sozial eta historikoarekin jartzen du harremanetan, eta azaltzen du langile masa handi batentzat desagertzen ari dela “lan humanoaren kontzeptu klasikoa”, edo horretarako sarbidea. “Horretarako sarbiderik gabe, **sistematik kanporatuak** jazarpen penalaren foku bihurtzen dira bide batez, dagoeneko bergizarteratzeko horizontetik eskaintzen ez duten *biltegi-espetxeetarako edo zaborte-gispetxeetarako* hautagai perfektuak”.

Kaliforniako (AEB) espetze sistema eredu hartuta eta zehazki Kataluniako autonomia erkidegoko sistema azter-

tuz, gutxienez hipotesi interesgarriak planteatzen ditu Pradok. Haren esanetan, 2008ko krisiak erakutsi duen gauzetako bat izan da nola gaur egun, periferiako herrialdeek ez ezik, zentro kapitalistan kokatutakoek ere sufritzen dutela nazioarteko kapitalak enpleguaren eta soldataren gainean ezarritako presioa. “Gaur egun, birgizarteratzea utopia gisara soilik uler liteke, edo hobe esan, erretropia gisara: dagoeneko ezin da historian atzera egin paradigma fordistako baldintzak berreraikitzeke. Gordinki, egungo testuinguru postfordistan, presoen birgizarteratze sozial eta laborala aporia hutsa da, hau da, zentzugabekeria, kasik lanik ez dagoen gizarte batean”.

“**Birgizarteratzea**” mito bat **bestetik ez da sistema kapitalista honetan**, “bizikidetzarako espetze politika” edo “espetze politika humanizatu” bat bezainbeste. Espetxea bera baita politika hiltzaile bat, osotasunean. Bertold Brehten “zer da banku bat lapurtzea fundatzearen aldean?” hura parafraseatuz,

beldurrik gabe galde dezakegu gaur: *Zer da delinkuentzia (terrorismoa?) Espetxe bat fundatzearen aldean?* Klean ere izan gaitezke bankuen esklabo, lanaren eta haren arauera moldatutako gizartearen preso; kartzelan ere libre izan gaitezkeen bezala, militante nahi bada, erresistentzian bada ere. *Preso bizi gintezke edo erdi libre...*

Espetxeak apurtzea, zentzu guztietan, ezinbesteko betebeharra izango da klase bereizketan oinarritutako gizarte eta haren zapalkuntza guztiak gainditu nahi dituenarentzat. /

1- Prison Policy Initiative.

2- Osabideak. www.publico.es/politica/prisiones-informe-denuncia-cerca-tres-presos-mueren-semana-carceles-espanolas.html

3- World Prison Brief 2018.

4- Euskal Memoria, datu basea: www.euskalmemoria.eus/eu/db

5- Tortura Espainiako Estatuan 2017, CPDT Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundearen txostena.

6- Dos concepciones de castigo en torno a Marx, Carolina Prado (2004).

7- Vigilar y castigar el nacimiento de la prisión. M. Foucault, 1975.

8- Cárcel y fábrica. Los orígenes del sistema penitenciario. D. Melossi, M. Pavarini 1977.

9- C. Prado, 2004.

10- D. Melossi, M. Pavarini 1977.

11- M. Foucault, 1975.

12- Victor Serge. Memorias de un revolucionario, Jean Riere 1978.

13- D. Melossi, M. Pavarini 1977.

14- La cuestión del trabajo penitenciario frente al cambio de paradigma. C. Prado, 2014. Universitat de Barcelona. Tesiaren aurkezpena: youtu.be/iR7RcXivnYc


“ARBEIT MACHT FREI” COVID-19AREN GARAIETAN

IKUSPUNTUA

Adam
Radomski



Lerro hauek idazten ari naizen unean, astebete igaro da ezkutuko Salbuespen Egoera hasi zenetik, eta arrazoi horregatik, gauzen egoerari buruz ikuspegi handiagoa izan arren, egoera aldakorra da, eta elementu asko daude argitzeke. Gauzak horrela, artikulu honetan nire asmoa martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren lanaren esparruari buruzko iruzkin bat egitea izango da.



HORNIKUNTZA KATEAK

Dekretuak argi eta garbi adierazten du pandemiak hornikuntza kate globalak etetea ekarri duela. Logistikaren helburua horrelako oztopoak saihestea bada ere, pandemiaren hedapen eta intentsitate azkarra eragozpen larria izan da kapitala eskala globalean metatzeko premientzako. Izan ere, pandemia horren fokua Txina izan da, hornidura kateetarako funtsezko pieza; enpresa ugariak kostuak merkatzen baitituzte erren-tagarritasun txikieneko prozesuak Asiako erraldoia- ren lurretara deslokalizatuz. Hori dela eta, Dekre- tuak inportazioko aduana izapideak arintzen ditu industria sektorean, hornidura kateak babesteko ahaleginean.

Horrela, «koiunturazko» ezegonkortasun egoera horrek enpleguan «egiturazko» eraginik ez izatea ezartzen da helburutzat, eta horrek ez dirudi oso sinesgarria. Zehazki, arazoak sor ditzaketen zenbait alderdi aipatzen dira, hala nola stock falta (*Just-In-Time* delakoaren ondorioz) eta hornikuntza kateen zurruntasuna, beharrezko epeetan ordezeko hornitzaileak aurkitzeko arazoak baitituzte. Hala ere, logistika enpresa handiak irabazten ari dira egoera horretan, lehen baino are lan gehiago baitute, Ama- zonek bezala, jende gehiago kontratatzen ari baita berrogeialdiak eragin duen eskari handiari erantzuteko, langileen kontura, noski.

TELELANA

Lanaren informatizazioa duela hamarkada batzuetatik hona eman bada ere, aldaketak gero eta azkarragoak dira. Dena den, Espainiako Estatuaren kasuan, informatizazioak asko du irabazteko. Gauzak horrela, Dekretuak estatuaren kapitala in- jektatzea aurreikusten du Eraldaketa Digitalerako Bulegoa handitzeko edo *ACELERA PYME* (ETE direlakoak azeleratu) planetan. Telelana birusaren euste-neurriak eta isolamendua bateratzeko mo- durik onena dela azpimarratu da, hau da, telelana egin berrogeialdia betetzeko. Hala ere, horretarako, lanaren informatizazioaren atzerapena oso azkar konpondu behar da; inbertsioak eginez ekipamen- duetan, ordenagailuetan, softwarean edo I+G+Bn. Gainera, Dekretuak telekomunikazioak bermatzeko beharra aipatzen du, «ezinbestekotzat eta estrate- gikotzat» jotzen baititu; izan ere, azken finean, te- lelana telekomunikazio azpiegitura operatiboa be- har du; eta, beraz, zaurgarria da horrekin lotutako arazoen aurrean.

Termino praktikoetan, telelana errazteak es- tatuko kapitala enpresen kapital finko bihurtzea dakar; beraz, litekeena da telelana gero eta presen-

teago egotea. Bestalde, telelanak lan-indarra atomi- zatzeko eta malgutasun handiagoa izateko aukera ematen du; horrela, kapitalak, aldaketak egiteko aprobetxatzeaz gain, dominaziorako tresna moduan erabiltzen du – estatuak diruz lagunduta –.

ABEEEEK (ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK)

Larrialdi Egoera deklaratzeko ABEEEn uholdea eragin du, eta berrogeialdia luzatu ahala, litekeena da datorren hilean askoz gehiago izatea. Supleki esanda, kontratuak aldi baterako etetea da; irauten duen bitartean, nominak ez dira ordaintzen, baina langabezia eskura dezakegu, sortutakoa gastatu ga- be, eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen jarraitzen da. Eragin diezaguketel kalterik txikiena duen neu- rria da, nahiz eta ezkutuko kaleratzea den, gizar- tean sor daitekeen gatazkari eusteko funtzioa du.

Aldi berean, 50 langile baino gutxiagoko enpre- sak salbuetsita daude Gizarte Segurantzako kuoten %100 ordaintzetik; edo %75 ordaintzetik, 50 edo gehiago izanez gero. Onura horri heltzeko, «normaltasunera itzuli» ondorengo 6 hilabeteen enpleguari eusteko konpromisoa hartu behar dute. ABEEEk, enpresei emandako laguntzarekin alderatuta, ez dira ia ezer; ez ahaztu, Gizarte Segurantzari egindako ekarpena gure soldatekin ordain- tzen jarraitzen dute, eta, sei hilabetetako akordioa hausten badute eta kalera botatzen bagaituzte, itzuli beharreko kopuruak jasangarriak dira haientzako. Mantentzen bagaituzte ez da elkartasunagatik, ba- lioa handitutako kapital aldakorrek garelako baizik (formazioaren bidez, adibidez). Langile aristokra- ziaren presentzia handiagoa duten sektore batzuen kasuan, negoziatziorako posizio hobeari esker, enpresek beste %25 ordaintzea hitzartu ahal izan dute, soldataren %100 mantentzeko.

Hemen, sindikatu nagusiek «batasun naziona- lari» dei egin eta «norabide onean» doazen gober- nuak hartutako neurriak txalotu dituzte. Horrez gain, grebak eten (Andaluziako ostalaritza, kasu) eta, kasurik onenetan, ABEEEk negoziatu dituz- te. Izan ere, ABEE bat negoziatu daiteke, baina ezin da gelditu, azken erabakia enpresak hartzen baitu. Ondorioz, sindikatuen ekintza eremua nabarmen murriztu da.

BEREZIKI KOLPATUTAKO SEKTOREAK

Kasu mediatikoez ari garela, Glovo, Deliveroo eta beste hainbat enpresetako *rider* askok ezin du- te hilabete egin lanik gabe, osasun babesik ezak dakartzan arriskuekin egin behar badute ere. Au- rreztutakoei esker aurrera egin dezaketenak ere



ABEEE bat negozioia daiteke, baina ezin da gelditu, azken erabakia enpresak hartzen baitu. Ondorioz, sindikatuen ekintza eremua nabarmen murriztu da

linbo batean daude; Justizia Auzitegiak autonomo faltsuak zirela ebatzi bazuen ere, enpresek ez die- te dagokiena aitortzen. Bien bitartean, patronalak «etxean gelditu» leloa baliatzen du salmentak han- ditzeko -merkatari txikiak barne-. Zer esan beltze- an lan egiten dutenei buruz, egoera irregularrean dauden migratzaileez, etxeko langileez, eta abarrez; inolako ogi apurrik gabe, gaixotasun larri batek ku- tsatzearen edo miseria gordinaren artean aukera- tzera kondenatuak.

Era berean, arriskuak ugaritu egin dira: industria gune handiak itxi egin dira, baina lantoki askotan lanean jarraitzen dute; osasun langileen baldintza negargarriak ez aipatzearen, arrisku larrian jartzen dira NBERik (Norbere Babeserako Ekipoak) ez da- goelako. Gainera, legeak, patronalak hala iradoki- ta, garraiolariei egun gehiagotan jarraian lan egiteko “baimena” ematen die eta geldialdi gutxiago egiten dituzte, istripu arriskua areagotuz.

Gutxieneko osasun neurriak betetzea eskatzen duten grebak eta gatazkak mundu mailan ugaritzen ari badira ere, Espainiako Estatuko gatazka maila txikia da. Astelehenean ekoizpena berriro hasi zen, enpresa handi batzuetan izan ezik, batez ere auto- mobilgintza sektorekoak. Izan ere, euste neurriak kontraesankorrak dira “funtsezkoa ez den” ekoiz- penak bere horretan jarraitzearekin.

AZKEN GOGOETAK

Agerian geratu da, beste behin ere, Estatua me- tabolismo sozial kapitalistaren parte baino ez dela, kaleetan eta lantokietan ordena mantentzen duena, integratutako sindikatuen lankidetzarekin. Gizarte laguntzari eusten dio egoera lehertu ez dadin, baina kapital pribatuari laguntzeko egiten du ahaleginik

Zer esan beltzean lan egiten dutenei buruz, egoera irregularrean dauden migratzaileez, etxeko langileez, eta abarrez; inolako laguntzarik gabe, gaixotasun larri batez kutsatzearen edo miseria gordinaren artean aukeratzera kondenatuak

handiena; publikoaren eta pribatuaren arteko diko- tomia faltsua modu gordinan agertzen da, posible bada.

Dekretuari dagokionez, patronala izango da bere hutsuneak gehien baliatuko dituen, eta ezin dugu ulertu babes sozialaren zatia enpresen “erreskate- tik” eta kontrol sozialetik bereizita. Frogatuta gera- tu da, berriro ere, eskubidea izatea eta hori egikaritu ahal izatea ez direla gauza bera, bizitzak arriskuan jartzera behartutako proletario asko ikusten ari di- ren bezala. Egoeran laguntzen saiatzen diren sin- dikatuen koadroei errespeturik galdu gabe, egoera orokorra da sindikatu integratuak deskalabru ho- nen kolaboratzaile zuzenak direla. Negoziazioan duten posizioa gatazkari eusteko duten funtzioaren arabera da da duten boterearen arabera baino gehiago, azken hori guztiz deseginda baitago. Hala- ber, berriro mahai-gaineratu da produkzioaren gai- neko kontrolaren auzia: ezin bada kalean borroka- rik egin, lantegietan egin behar litzateke. Tamalez, hamarkadetan zehar integratutako sindikalismoa izateak hori ia ezinezkoa den tesitura batean utzi gaitu, ekoizpenaren borroka para-estatu eta estatu egituretan delegatu dugulako.

Gainera, etendako jarduera ekonomikoa erres- katatzeko kredituarekin jokatzek zuzenean gure aurka etorriko diren ondorioak ditu. Azken finean, zorra dominazio mekanismo bikaina da. «Okerre- na etortzeko dago», zioen Sanchezek pandemiari erreferentzia eginez. Alabaina, etortzeko dagoena hori baino askoz harago doa, eta egiturazko al- daketak suma daitezke lanaren esparruan. Nolabait, ABEEEak lan merkatuarekin izango dugun harre- manaren iragarpen makabroa dira: gero eta jende gutxiagok egingo du lan, gero eta denbora gutxia-



Frogatuta geratu da, berriro ere, eskubidea izatea eta hori egikaritu ahal izatea ez direla gauza bera, bizitzak arriskuan jartzera behartutako proletario asko ikusten ari diren bezala

goan, eta aldizkakotasun handiagoz.

Lan esparrua alde batera utzita, laguntza sareak sortu eta zabaldu izana azpimarratu behar da. Horri dagokionez, Burgosko Elkartasun Sarearen adibidea aipatu nahi nuke; izan ere, osasun krisi honen ondorioak arintzera mugatzen diren beste sare despolitizatu batzuek ez bezala, klase etsaia seinatzen dute eta ez dute zurretzen, beren elkartasun lanaz baliatzea eragotziz. Proletalgoaren auto-antolaketaarako gaitasuna jarri dute mahai gainean, eta gainera, klase independentziaren premisatik, horri esker zentzu guztiz politikoa ematen diote elkarri laguntzeari. Era berean, lerro hauek idazten ari naizen unean, alokairuen greba sustatzen ari dira hainbat herrialdetan, eta hori beti da interes handikoa.

Egia da erresistentzia oso azkar eten dela, baina ez erabat: COVID-19ko grebak horren adibide.

Dena dela, itxitzat jotzen genituen gauza asko ditugu oraindik birpentsatzeko. Aspaldiko lagun batek esan zuen bezala: «Hobe da aldi baterako garaituak gaudela aitortzea, baldin eta lortu nahi dena hala ez jarraitzea bada». /

GAZTE BORROKAK IRENTSI NAHIAN

IKUSPUNTUA

Ane
Ibarzabal



Generazioa giza multzo historiko konkretu bat litzateke, produkzio forma zehatz batek determinatutako garai bereborean sozializatutakoak. Sozializazio horretatik, komunean ematen den jardun sozial horretatik, ezaugarri kultural eta subjektibo espezifikoak eratortzen dira. Iza-tearen osaketa fasean, sortzean, bereziki sentibera denean norbera, bereizgarri estruktural horiek asumitzen dira, generazio horri partikularra zaion izate bat gorpuztuz. Izate horretatik abiatuta garatzen du jarduna norbanakoak, interakzioan, norabide zehatz batean, garaiari dagozkion muga eta aukerekin. Plusbalioaren erauzketaren logikaren baitan marraztutako joko zelai horrek sortutako dinamika zehatzek, identitate kolektibo bat sortzen dute, aurreko ziklo politiko-ekonomikoetako generazioekin hausturan, eta horrek, nabariago batzuetan baina ia

beti agerikoa den gazte mugimendu baterako aukerak sortzen ditu.

Sortu diren adina forma hartu dituzte gazte borrokek kapitalismoan, garai anitz zein aldarrikapen ezberdinekoak, bukaera eta ondorio desberdinak izan dituztenak. Baina borroka ezberdinak ikusita kapitalismoak gazte borrokekiko harreman ezberdinak garatzen dituela ikus daiteke, modu batera edo bestera, maiz borroka hauek bere logikaren baitan asumitu eta eraldaketarako aukera errealak ezabatzen dituelarik. Dinamika edo harreman horiek, gazte esparrutik haragoko borroketan ere gerta daitezke, eta era berean ez dira gazte borroka guztietan egoten, noski.

Kapitalismoak, produkzio sistema hegemoniko gisa, dinamika sozialak bere logikaren baitan barne-biltzeko gaitasuna du, eta askotan hori izaten da

Kapitalismoak, produkzio sistema hegemoniko gisa, dinamika sozialak bere logikaren baitan barne-biltzeko gaitasuna du, eta askotan hori izaten da gazte borroken garapena



(...) lana daukagu kapitalismoak bereganatzen dituen borroken nolakotasuna xehatzen eta prozesu orokor horiek ezaugarritzen. Baina argi dago, estrategiarik gabe, oinarri ideologiko sendorik gabe eta performancearen eta masa akritikoen mobilizazioaren bidez errazago bereganatzen dituela borrokak kapitalismoak

gazte borroken garapena. Borroka horiek kapitalaren logikaren baitan bi eratara asimilatzen dira: borrokaren esperientziak masa-kultura elementuetara murriztuz edo, bestela, instituzionalizatuz.

Masa-kultura elementuetara murriztea litzateke, esaterako, mugimendu edo korrante baten borroka espresio oro auzi estetiko batera murriztearena, adibidez, Mod-en edo Teddy Boys-en kasuak Ingalaterran. Horien espresio kulturalak, musika zein janzkera esaterako, guztiz bereganatu zituen merkatuaren logikak, gaur egun mugimendu horien arrasto bakarra ondare estetikoa delarik ia. Estetika hutsetik harago edo arte espresio puntaletik aparte, borrokatik kultura alternatibista faltsua oinordekotzearena legoke. Borroka antikapitalistetatik etika iraultzaile erreala garatu beharrean, moral burgesa erreproduzitzea litzateke. 60eko hamarkadako AEBetako matxinaden ondoren jaio zen kultura hippya litzateke horren adibide. Borrokarako grina eta proletariotzaren eskubideen defentsa aldarrikatzetik urruti, moralkeria merkea. Horrelako mugimenduek kultura iraultzailea neutralizatzen dute, sistema hegemonikoaren mesedetan, izan liteke, esan bezala, estetika iraultzailerak murriztuz edo alternatibismo faltsua sustatuz.

Beste bide bat borrokaren integrazioarako, insti-

tuzionalizazioarena da. Masa borrokaren integrazio politikoa ematea, zuzenean estatu aparatuetan integratuz eta proletariotzaren gehiengoa albortuz. Adibide litzateke, etxebizitza eskubideen aldeko gazte borrokek alokairu sozial iritsezinetara izaten duten inboluzioa. Horrela, estatu aparatuek kaleko aldarriak lasaitzen dituzte eta borrokaren ordezkapen figura burokratizatuak sortzen dituzte (GKE, ministerioak...), eta horrela, berriro ere, klase borroka neutralizatzen da. Gainera, instituzioak zilegiztatzen dira horrela, aldaketa marko burgesen baitan posible denaren ilusioa sortzen baita.

Baina, integrazteaz aparte, burgesiak finantziatzen eta hauspotzen dituen gazte borrokak daude. Gazte borroka horiek kapitalismoa produkzio sistema bezala indartzeko, lurraldearen gaineko kontrola ezartzeko edo bestelako interes geopolitikoak exekutzeko tresna gisara, zein kapitalaren modernizazioarako trantsizioarako baldintzak jartzeko balio dute. Izan ere, kapital harremanak berezkoa duen hazkunderako beharragatik, hots, esplotazioan sakontzeko beharragatik, esparru berrien merkantilizazioarako eta produktibitatea handitzeko eskura dituen aparatu guztiez baliatzen da burgesia. Zer esanik ez, kapitalaren akumulazioak behar besteko etekinik ematen ez duenean, edo produkzio sistema

hegemonikoa ez denean. Mota horretako esku-hartzea ikusi ahal izan genuen 2014. urtean; oihartzun handiz zabaldu zen AEBetako gobernuaren interbentzioa Kubako herrialdean, adibidez.

Azkenik, burgesiak merkatu berriak irekitzeko beharrianari erantzungo dioten gazte borroken auzia azaldu nahiko nuke. Adibide moduan, azken aldian nabarmen hasi den ekologismoaren aldeko borroka hartuko dut. Greta Thunberg gaztea irudi den mugimendu mediatikoak, krisi klimatikoaren diskurtsoa urardotzeaz gain eta borrokatu beharreko auzi errealak azaleratzetik urruti, kapitalismo berdearen ideiaaren egonkortzean eragin du. *Eco-friendly* merkatuak hedatu dira eta produkzio modu berriak txertatu dira. Auzi errealarari heltzeko, hau da, produkzio kapitalistari seinaltatzeko aukerak zaildu ditu, performancearen politika bultzatu da, eta kapitalismoa zein burgesia dira indarberrituta atera diren bakarrak.

Erraza da, logika burgesaren baitan, politika burgesaren eta horrek inposatzen dituen markoen baitan, borroka bat diseinatzea, nahi ez bada ere. Erraza da borondate iraultzailea izanda ere, kapitalismoak zeure diskurtsoa desklasatu eta erreforma instituzional soil bat edo masa kulturaren apendiz bat bilakatzea. Horregatik, batetik, lana daukagu kapitalismoak bereganatzen dituen borroken nolakotasuna xehatzen eta kapitalismoak bere egiten dituen elementuak ezaugarritzen, baina argi dago, estrategiarik gabe, oinarri ideologiko sendorik gabe eta performance bidez masa akritikoen mobilizazioarekin errazago bereganatzen dituela borrokak kapitalismoak. Ez badago klase independentziarik eta ez badago klase antagonismoaren printzipiorik, kapitalismoak borroka irentsiko du. Izan ere, berebiziko garrantzia du, estrategia sozialistaren baitan gazteak mobilizatzea eta antolatzea. Errealitate osoaren gaineko ikuspegiak eta berau interpretatzen jakiteak, tartean etsaiari mesedegarri zaizkion posizioak eta garaiak identifikatzea eta borrokatzeak, baimenduko baitigu hurrengo pausoa bide one-
tik ematen, batzuetan zuzenena ez bada ere, irentsi ez gaitzan. /



KOLABORAZIOA

Sendoa Jurado

KART

ZELENA

Kartzela, gaur egun ezagutzen dugun bezala ulertuta, berri samarra da. Zibilizazioaren sorreratik giltzapetzeak erabili badira ere, orain mende gutxi arte akusatuarekin zer egin erabaki bitarteko neurriak ziren horiek. Gero, bere askatasuna erabakitzen zen “errugabea” zela ondorioztatzen bazuten ala, “erruduntzat” hartuz gero, zartadak jasotzera, tormentuetara edota hiltzera kondenatzen zuten. Gatibualdia, beraz, orainaldiko kartzelaldi prebentiboaren parekoa zen, epaitua izan arteko kustodia bat.

XVIII. mendeko bigarren erdialdetik aurrera hasten dira kartzelak erabiltzen zigor neurri modura, eta hau gertatzen da industria-iraultza gauzatzearekin batera edo, beste era batera esanda, feudalismotik kapitalismora emandako trantsizioaren testuinguruan. Ekoizpen prozesuan sartutako makineria berriak ekarri zuen, batetik, lan-esku kualifikatuaren soberakin taldeak agertzea eta, bestetik, hirigune handien sorrera eta ondoriozko migrazioak landa eremuetatik hirietara.

Egoera horretan, jende askok bizi-modu berrian integratzeko zailtasunak topatu zituen, bai langabeziaren ondorioz zein ezarritako araudi moral eta legalei moldatzeko ezintasunagatik. Horrek guztiak bide eman zien alkoholismoari, prostituzioari eta eskaletasunari, ez modu indibidualean, baizik eta giza-talde zehatzei eraginez, pobreziaren agerpena fenomeno sozial modura markatuz.

Hau dela eta, kartzela gisara ezagutzen dugun instituzioa sortu zen, psikiatrikoen eta hospizioen moduko beste erakunde batzuekin batera. Ez zen sortu delinkuentziari erantzuna emateko bitarteko gisara, ordena sozialaren kontrakotzat hartzen zituzten populazio taldeak kaletik kentzeko neurri gisara baizik, pobreziarekin zuzenki lotuta.

Ia 300 urte pasatu dira ordutik, huskeria bat historia bere osotasunean hartuta baina, delinkuentzia aitzakiatzat jarrita, gaurko kartzela ere pobreen aurkako instituzio burgesa baino ez da.

Kartzela bazterketa eta miseriaren ondorioz gizarte burgesaren parametroetan sartzen ez den oro kaletik ezabatzeko bitartekoa da gaur ere, XVIII. mendean bezala. Zer esanik ez militante politikoei dagokienean, izan ere, horiekiko helburua zigor eredugarria ezartzea baita, izua zabalduz sistemari aurre egiten diotenen militantzia baldintzatu nahian.

Ezinbestekoa da kartzela zer den eta nola funtzionatzen duen ulertzea bere zeregina konprenitzeko. Kartzela, inoren birgizarteratzea bilatzetik urrun, presoaren pertsonalitatea eta borondatea mendean hartzeko tresna da. Bere oinarri nagusiak obedientzia eta sumisioa dira, eta horretarako espetxearen opakotasuna baliatzen du, era horretan, praktika legalak eta legez kanpokoak uztartuz.

Kartzela-sarean espetxe mota ezberdinak daude. Frantziako Estatukoek asimilazioari eta infantilizazioari ematen diete lehentasuna, Espainiako Estatukoek inposaketari garrantzia handiagoa ematen dioten bitartean. Estatu berean ere ezberdintasunak egon daitezke espetheen artean, eta kartzelan bertan moduluek (espainiarretan) edo dibisioek (frantziarretan) presoaren arteko ezberdintasunak ezartzen dituzte: errespetu moduluetatik, isolamenduetara; drogaren mendekoak gailentzen direnetatik, haxix saltzaileak gailentzen direnetara; hirugarren gradutik lehenengo gradura, eta lehenengo graduari, lehenengo fasean eta bigarren fasean daudenen arteko banaketa.

Kartzelak, beraz, kartzela mota asko barnebiltzen ditu bere baitan, presoaren jarreraren arabera hori are gehiago zigortzeko baldin eta makurtzen ez bada, ala malgutasun handiagok jokatzeko zigorra onartzen badu. Bestetik, espetxe-legedia bi zutabetan oinarritzen da: eskubideena eta betebeharrarena. Eskubideen zutabea presoek, bereziki preso politikoei baina kasu batzuetan preso sozial kontzientziadunek ere, egindako borrokaren ondorioz, oso borroka latzak sarritan, irabazitako arnagune txikiak dira.

Kartzela bazterketa eta miseriaren ondorioz gizarte burgesaren parametroetan sartzen ez den oro kaletik ezabatzeko bitartekoa da gaur ere, XVIII. mendean bezala. Zer esanik ez militante politikoei dagokienean, izan ere, horiekiko helburua zigor eredugarria ezartzea baita, izua zabalduz sistemari aurre egiten diotenen militantzia baldintzatu nahian





Balantza bat bailitzan, eskubideen zutabeen irabazitako borroka bakoitzak betebeharren zutabearen zama arintzen laguntzen du, eta logika horretan kokatzen da estatuek betebeharren zutabe hori indartzeko eta eskubideena ahultzeko jartzen duten kemena. Lehen esan badugu kartzelak presoaren borondatea apurtzea bilatzen duela, preso politikoaren kasuan saiakera hori alderdi pertsonaletik harago doa, garaitu beharrekoa kolektibo politiko oso baten borondatea izanik.

Arestian aipatu bezala, espetxeak opakutasuna erabiltzen du, bere errepresio-dinamikan, praktika legalekin batera legez kanpokoak garatzeko. Kartzelan gertatzen dena kartzelan gelditzen da gehienetan. Ezinbesteko papera jokatzeko dute hemen kartzelazainek, betebeharren arloa metodikoki betearaziz, eskubideena sarritan bete gabe uzten duten bitartean. Oraindik gordinagoa da, espetxezain horiek presoak jipoitzeko, zigor ziega berezietako ohean hainbat egunez lotzeko edota beste

beste era batzuetako gehiegikeriak eta torturak aurrera eramateko jarrera hartzen dutenean.

Legez kanpoko praktiken artean, modu sotil bezain hilgarrian ezartzen den osasun-arreta eza dago. Sevilla II-ko isolamendu moduluan, koronabirusak elkarriketa guztiak pilatzen dituen honetan, hilabete oso bat daramate medikuaren bisitarik izan gabe. Hori bai, isolamendura kondenatu dituzte Espainiako zein Frantziako Estatuetakok kartzeletan dauden preso guztiak, gaixorik daudenei, prebentiboei edota zigorrak ia beteta dituztenei etxera joateko aukerarik eman gabe.

Zenbat preso hiltzen diren urtero Frantziako eta Espainiako Estatuetakok kartzeletan laguntza mediko-psikologikoa ukatu dietelako! Preso politikoaren kasuan, eritasunen batek jota daudenen askatasun aukera guztiak, estatuentzat, damutzetik pasatzen dira ezinbestean. “Damutu zaitetz ala hil” esaten diete, dispertsioa eta urrunketaren bitartez “damutu zaitetz ala zure senideek odo-

Oraindik gordinagoa da, espetxezain horiek presoak jipoitzeko, zigor ziega berezietako ohean hainbat egunez lotzeko edota beste era batzuetako gehiegikeriak eta torturak aurrera eramateko jarrera hartzen dutenean







Sendoa Jurado

Euskal Herri independente eta komunistaren eraikuntzan ezin dugu amnistiaren aldeko borroka bazterrean utzi

lez ordainduko dute” esaten dieten bezala. Etengabeko xantaia zitala.

Begi-bistakoa denez, kartzelak ez dira inola ere inor birgizarteratzeko lanabesa, langileria zanpatuta mantentzeko burgesiaren kontzentrazio-esparruak baizik. Harresien alde honetan, alabaina, ez gara libreak, kapitalismoa eta inperialismoaren preso baizik. Kartzelaldi arindu batean bizi gara, zeinetan presoen kasuan bezala, eskubideen esparruan askatasun apur batzuk eskuratzeko borroka egitea ezinbestekoa den. Kolean emandako borrokek, gainera, eragin zuzena dute kartzelotako dinamiketan, alde bietako borrokak bat eta berbera direlako.

Euskal Herri independente eta komunistaren eraikuntzan ezin dugu amnistiaren aldeko borroka bazterrean utzi. Amnistia errepresaliatu politiko guztien askatasunaren alde, amnistia militante horiek borrokara bultzatu zituzten arrazoen gainditzearen alde, amnistia borrokaren zilegitasunaren alde eta errepresioaren onarpenaren kontra. Borroka komunista, justizian oinarritutako kartzelarik gabeko gizarte baten alde. Barruan zein kanpoan, bietan jarrai! /

ZATIKETA ARAKO JOERAZ

IKUSPUNTUA

Amets
Sarasua



Gutxi iraun dio feminismoari emakume guztiak ahizpa gisa aurkezteko gaitasunak. Baretzen ari da euforia eta ezbaian jartzen perspektiba. Galtzen ari da «komunitate» baten parte sentitzeak zeukan erakargarritasuna; jada ez dugu aski zapalkuntzen definizio abstraktu batekin, ez feminista izateko gonbit motibagarri batekin ere.

Badirudi, interseksionalitatearen hutsuneak

azaleratzen ari direla. «Dena korapilatua dago» errepikatzen dute: errealitatearen konplexutasuna mataza baten sinpletasunean bilduz. Langileok, ordea, galdera zehatzak dauzkagu, ez dugu aski abstrakzioarekin. Geure bizimoduaren zergatiak ulertu eta bertatik irteteko zer egin behar dugun jakin nahi dugu. Erantzun bila gabiltza.

Neurri zehatzen inguruko eztabaidak ugaritu dira: zer egin, nola egin, norekin egin... Galdera horien aurrean bakoitzak hartutako jarrerai esker, agerian geratzen ari da auzia lantzeko norberak daukan borondatearen zein konpromisoaren izaera nolakoa den. Elkarrekin «gora borroka feminista!» garrasi egiten dugunean, *gu* sentitzen gara, guztion artean bat egingo bagenu bezala. «Borroka» horren esanahia arakatzen hasten garenean, baina, konturatzen gara indar bakar bat izan ordez, zatituta gaudela,



etsaituta.

Aldarri feministen anbiguotasunak eztabaida sustatu du, eta eztabaidaren irrazionaltasunak ezin elkar ikusia. Bakoitza bere lubakian dago orain, gotortuta, elkarren aurka. Egia da hori ez dela joera bakarra eta Euskal Herrian feminismoak kontziliaziorako indarra duela oraindik. Baina, geroz eta nabariagoa da gurean ere: gizonezkoekiko gorrotoa uztartzen duten taldeak eta gizon transak aldarrikatzen dituztenak; prostituzioaren babesleak eta abolizionistak; feminitatearen defentsa egiten dutenak eta transfeministak...

Kezkagarria da. Eta ez feminismoa bere baitan etsaitua dagoelako, logikoa da, klase interes kontrajarriak babesten ditugu. Kezkagarria da langileria etsaitasun politikoan dagoelako. Orain larritu egiten gara batasuna zen tokian banaketa ikusten dugunean, baina zer espero genuen, normala da, bat dator azken urteotan Euskal Herrian feminismotik zabaldu diren hiru mezu nagusiekin: «zapalkuntza-ren adierazpenetan jarri behar da jomuga», «norberaren iritzia norberaren esperientziatik dator» eta «guztiak gara zapaltzaileak».

Azken mezu horretan jarri nahi nuke arreta, kaos politiko hau sustatzeko argumentu nagusietako bat izan baita. Ukagaitza da, guztiok probesten

Aldarri feministen anbiguotasunak eztabaida sustatu du, eta eztabaidaren irrazionaltasunak ezin elkar ikusia. Bakoitza bere lubakian dago orain, gotortuta, elkarren aurka. Egia da hori ez dela joera bakarra eta Euskal Herrian feminismoak kontziliaziorako indarra duela oraindik



ditugu eskura dauzkagun bitartekoak, aukera horiek klase-kideen sufrimenduan oinarritzen direla jakinda ere. Dekadentzia dagoen, baina, oraindik orain Erdigune Inperialista izaten jarraitzen duen Euskal Herrian bizi gara, eta hau ez da dohainik, noski. Gure ekintzez eta hauek sortzen dituzten ondorioez arduratzeko betebeharra daukagu, bai. Baina izugarrizko arduragabekeria da, besterik gabe, inizatiba feminista indibidualari dei egin, eta albokoa, dauzkan «pribilegioen» erruduntzat jotzen hastea: «ez erosi Bangladesheko emakumeek egindako produkturik; ez kontratatu interinarik; ez eduki harreman heterosexualik; eztabaida batean ez erantzun emakume arrazializatu bati; ez izan emakume, izan transa; emakume proletario batek prostituitzea erabakitzen badu errespetatu...».

Noski keinu txikiek garrantzia dutela. Baina, eguneroko ekintza horiei helburua langileok gure erreprodukzioaren gaineko kontrola eskuratzeko izan behar da, ez autokonplazientzia. Horregatik, kontuan izan behar dugu, alde batetik, keinu txiki horiek txertatzea desjabetuon estratu guztietan bideragarria ote den: bertako produktu ekologikoak erosteak ez dauka zama bera Antiguon ala Beraunen bizi den langile batentzat, gure seme-alaben zaintza ezin dugu berdin kudeatu langile aristokrazia edo proletarioak bagara... Bestetik, kontuan izan behar dugu ere, ekintza horien eragiteko gaitasuna zein den: *txapa* bat soinean jartzeak eta klase-kideen borrokaren sostengu izateak ez baitituzte ondorio berberak sortzen. Keinua txiki batzuek iraultza antolatzen dute, baina, ez guztiek.

Kaos kontzeptuala erein da, eta kaos organizatibo zein politikoa jaso dugu ordainetan. «Una muerte anunciada» esaten da gazteleraz. Eta honen aurrean zer? Hemen doaz egoera honi aurre egiteko orduan, kontuan eduki ditzakegun bi puntu. Batetik, eta lantzen ari ginen puntuari jarraiki, hartzailerik eta jarrera zehatzik izendatzen ez duen pribilegioen aurkako kanpaina egiteari utzi, eta langileok gauzatzen dugun gizarte burgesaren erreprodukzioaren azterketa zehatza egin behar dugu: figura diziplinarioak identifikatu, haien funtzioak zerrendatu eta erabiltzen dituzten mekanismoak ezagutu behar ditugu.

Eta batez ere, figura diziplinarioak (eta orokorrean edozein jarrera zapaltzaile) gainditzeko tresna kolektiboak sortu behar ditugu. «Zure pribilegioei uko egin behar diezu» elkarri aurpegiratzearekin ez dugu senar autoritarioarekin, gerente erasotzailerekin, ebaluatzen gaituen ikaskidearekin, ez inolako jarrera matxista orokortuekin bukatzea lortuko. Klase batasuna ezin da norberak dauzkan

baliabideen edo borondatearen arabera antolatu. Horregatik zaigu beharrezkoa genero problematikaren aurkako borroka prozesu sozialistaren baitan kokatzea: kultura sozialistaren lanketaren baitan, jokabideak zein horien konplimendurako metodoak adostu ahal izateko.

Bestetik, kaos egoera honi aurre egiteko bigarren puntua, ondorengo jokaldi makurra neutralizatzea da: klase feminismoaren gaitasunak anizteko beharra, langileria etsaitzeko aitzakia gisa erabiltzea. Bakoitzak bere zapalkuntza garrantzitsuena gisa ulertzea, bakoitzak subjektu bat osatzea, nahimenaren arabera jokatzeko... sustatu da. Muturtuta gaude orain: izan, iritzia zein protagonismoa gainditzeko inolako borondaterik gabe, edo izan, atomizazioa gainditu eta langileon alde borrokatzeak exijitzen duen klase batasuna eratzeke inolako konpromisorik gabe.

Pentsatu nahi dut dena ez dela moda kontua, eta postmodernistek haien buruak «klase feminista» gisa izendatzen dituztenean, inertzia iraultzaile bat dutela adierazten ari direla. Zergatik zapalkuntzak landu eta zertarako subjektibitateak antolatu kontsentsuz erabaki behar dela aurpegiratu zaigu maiz. Sor ditzagun espazio horiek, bada. Batu gaitezen politika egiteko, zer eta nola egin erabakitzeke. Kapitalismoak ezartzen digun genero problematikari aurre egin eta optika proletario batetik sexu-genero askatasunaren aldeko borroka antolatzeke. Feminismoak emakume burgesekin batu gaitu, langileon artean bereizteke. Batu dezagun klase gorrotoa, antolatu klase elkartasuna, langile bakar bat bidean geratu ez dadin. /

IKUSPUNTUA

Aitor
Bizkarra



BARBAROEN ERNAZIMENTUA



77 Artea

Joxe Azurmendiren *Espainolak eta euskaldunak* liburua erabili dut eskutan azken asteotan eta irakurketa sukartsua izan da zinez. Ondorioztatu dudanez, ezin aipatu gabe utz litekeen testua da honakoa, egun euskal kulturarekikoez ahotsa goititu gura duen edozeinentzat bederen. Aldeko izan zein kontrako, ekidin ezineko errealitate objektiboak dira mugarriak, eta testu hau mugarri bat

da inongo ezbairik gabe. Artikulu honen helburua Azurmendiren testua ardazten duten bi ideia nire ustez nagusiak iruzkindu, eta iruzkin horien bitartez, orokorrean kulturari eta konkretuago euskal kulturari buruzko beste bizpahiru ideia zirriborratu eta mahaigaineratzea izango da.

Espainolak eta euskaldunak testua ardazten duen lehenbiziko ideia «barbaro» kontzeptuaren kritika

sutsua da. «Barbaro» hitza, bere jatorri grekoan, grezieraz mintzo ez zen atzerritarrari deitzeko erabiltzen zen eta, hitz egin beharrean «murduskatu egiten duena» edo «hizkuntza lardatsa darabilena» esan nahi du gutxi gorabehera. Kontzeptu honen garapen historikoaren gorabeheretan sartzeko denborarik eta espaziorik ez daukat hemen, baina bere bilakaeran, estadio kultural azpigaratuetan trabatu diren gizataldeei edo zuzenean kulturarik ez dutenei erreferentzia egiteko erabili izan da, estadio zibilizatura iritsi direnekin kontrajarrita. Ideia honen korrelatu linguistikoa hizkuntza barbaroa edo barbaroen hizkuntza litzateke, zibilizazioaren garapen erlijioso, zientifiko zein artistikoaren espresibide izateko ezgauza dena. Eta, noski, euskara, mendeetan zehar eta baita egun ere, zibilizaziorako zein aro modernorako hizkuntza ezgaitzat jo izan

den partetik, barbaro izatea ez dela ezein hizkuntza zein kulturaren ezaugarri substantzialik erakusten tematzen da Azurmendi, erudizio historiko handiz. Platonek, esaterako, neologismo andana ekoitzi behar izan zuen bere pentsamendua greziera idatzian eman ahal izateko eta Zizeron bera ere kexu zen latinez filosofia nekez egin zitekeelako, bere txirotasun kontzeptuala zela eta. Zeresanik ez, noski, erromantze bastardoez edo hizkuntza germanikoez ari bagara... kultura guztiek daukate beren *pudenda origo* barbaroa, jatorri lotsagarria (hortik nazionalismo ororen premisa diren mito fundazionalak). Historiatik atera daitekeen irakaspen behinena zera da, barbaroaren gaineko erretorika honek guztiak errealitate substantzial bat izendatu bainoago, espantsio nahiarekin eta boterearekin estuki lotutako funtzio ideologiko nabaria bete izan (eta betetzen)





duela, hots, lurralde «barbaroen» gaineko konkista eskubidearen zilegiztatzeko funtzioa. Zibilizatuaren eginbehar naturala barbaroa azpiratzea da, bera zibilizatzeko (ebanjelizatzeko, demokratizatzeko, kasuaren arabera) beti ere. Eskema honen espresio garaikidea gerra humanitarioak edo demokraziaren aldeko gerrak izan daitezke, adibidez.

Barbaro/zibilizatu nozioen orbitan artikulatzen den kulturaren adiera hau, non kultura bat eta bakarra litzatekeen inkulturaren edo kulturarik ezaren aldean, aski kritikatu izan da XX. mendean zehar antropologia kulturalaren eta etnologia konparatiboaren eskutik, eta gaur egun ia aho batez onartzen da ezin garela Kulturaz mintzatu, kulturez baino. Dena den, formazio etniko-kultural ezberdinen estatus ontologikoa parekatzea du xede etnologia mota horrek, baina formazio sozial bakoitzaren baitan ere isla izan dezake kulturaren adiera nahi baldin bada elitista hark, zeinaren arabera formazio prozesu bat eta gero eskuratzen den hori den kultura, eta ondorioz, demagun, analfabeto baten mundu ikuskera eta kondukta irizpideak ez liratekeen kultura.

Liburuko bigarren ardatz-ideia nagusia zera da, Euskal Herriak ez duela izan Ernazimenturik eta, hortakotz, Euskal Herria herririk ez den herri bat izatearen zergati azkena XVI eta XVII mendegarretetan bila dezakegula. Laburki esanda, bi faktorek eragin bide zuten Ernazimentuaren porrota Euskal Herrian; endogenoa bata, exogenoa bestea.

Faktore endogenoa, sintesian, Azurmendiren «Bi Euskal Herrien tesia» dela esan daiteke; izan ere, zegamarraren aburuz, XVI eta XVII mendegarretetan «erdibitu zen, bere identitatea oraindik aurkitu ezin duen Euskal Herri eskizofrenikoa». Tesi honen arabera, bi idazle taldek sinbolizatuko lituzkete garaiko bi joera, jokabide eta planteamendu arras ezberdin, bi Euskal Herri. Alde batetik, apologistak dauzkagu, Esteban de Garibay, Baltasar Etxabe eta konpainia, salbuespenak salbu askazi nobleko jaunak oro har, gaztelar monarkiko porrokatuak eta hango gorteetara (hots, kanpora) begira bizi zirenak. Idazle hauek euskal jatorriari gorazarre egiten zioten (basko-iberismoa), euskal kaperatasun unibertsalari, odol garbitasunari, beste arrazekin nahasi gabeko antzinako arraza menderagabe izateari eta baita euskararen handitasunari ere behar bazen, baina beti ere gaztelaraz. Granadako konkistaren ondoren (1492), XVI. mende osoa iraun zuen odol garbiketa kanpaina bat izan zen Gaztelako erresuman judu eta mairuen kontrakoa eta, itxura guztien arabera, apologisten figura ulertze-ko ezinbestekoa da testuinguru honetan kokatzea,

Historiatik atera daitekeen irakaspen behinena zera da, barbaroaren gaineko erretorika honek guztiak errealitate substantzial bat izendatu bainoago, espantsio nahiarekin eta boterearekin estuki lotutako funtzio ideologiko nabaria bete izan (eta betetzen) duela

non euskalduntasunaren (batez ere arraziala) diferentzia azpimarratzea ez-judu eta ez-mairu izaera azpimarratzeko modu bat baitzen; diferentzia azpimarratu, baina Gaztelan integratzeko (kontuan hartu behar da garaiko gaztelar nobleziaren zati handi bat konbertso judu eta mairu aberatsekin nahastua zegoela ordurako *Libro verde de Aragón*ek erakusten zuen bezala). Motzean esanda, apologia epikoen atzean ez zegoen jauntxoek klase interes prosaikoak baino. Horren adibide dira, besteak beste, 1613ko abenduaren 10eko Bizkaiko Batzarrean jauntxoek prokuradore moduan onartuak izatea debekatzea «*los que no supieran leer y escribir en romance*» horiei; eta, 1631an, Gatz Estankoaren Matxinada delakoaren testuinguruan, herri xeheak Batzarrean euskaraz hitz egin zedin aldarrikatzea. Hala aldarri nola debekuok garaiko klase gatazkaren aspektu

linguistikoa baino ez dute osatzen.

Beste alde batetik, berriz, euskal idazleak dauzkagu, Etxepare (XVI), Sarako Eskolakoak (XVII) etab., elizgizonak oro har (Arnaut Oihenart salbuespen), baina formazio humanistadunak eta apologistez iritzi onik ez zeukatenak Klaberiaren bertsoek erakusten dutenez: «Burlatzen naiz Gari-bayez bai halaber Etxabez, zeñak mintzatu baitire erdaraz Eskaldunez». Elizgizonok ez ziren Euskal Herriaz gehiegi mintzo, baina euskal herriari mintzo zitzaizkion (hots, barrura), euskaraz. Dena den, kontraerreforma garai betean izaki, euskal idazleok ere interes prosaikorik izango zutela ondorioztatzen ez dago zaila.

Nolanahi ere, hizkuntza nazional bat ez du literaturak bakarrik egiten. Antonio de Nebrija gaztelaren lehen gramatikariak 1492an (Granadako



Gure buruari galdetu beharko genioke bloke kulturalen faktore determinantea, garaian garai, faktore etnikoa ala klase faktorea izan ote den edo zein proportziotan gailendu zaion bata besteari sasoian sasoi

konkistaren eta Colón Bahametan lehorreratu zen urte berean) idatzi zuen bezala, «*siempre la lengua fue compañera del imperio*» eta batasun administratiborik gabe nekez sustraitu liteke hizkuntzarik aro modernoan. Horixe da, hain zuzen ere, Azurmendik seinalatzen duen faktore desintegratzaile exogenoa, XVI. mende hasieran, nazio modernoek eraikitza-ri hasiera emango zion aldi historikoan, Nafarroako Erresuma galdu izana: Nafarroarik ez, Ernazimenturik ez. Kuriosoa da nola historikoki euskal klase agintariak euskararen eta euskal kulturaren urkatzaille papera bete duela frogatu ondoren, gertatu ez zenaren nostalgia egiten den: «Nafarroa izan zitekeen euskara hizkuntza ofizial deklaratu zigun estatu euskaldun bat», «Euskal Ernazimentu bizi bat protagoniza zezakeen foko bakarra genuen hura»... Jakinik, gainera, Nafarroako eliteek eta admi-

nistrazioak erabiltzen zutela latina ez zen hizkuntza bernakulorik ordurako, eta ez euskara preseski...

Bi Euskal Herri egon direla eta badaudela egun ere onartzeko moduko tesia dela iruditzen zait, baina ez nuke esango kanpora/barrura begira egotea uzi bat denik. Gure buruari galdetu beharko genioke bloke kulturalen faktore determinantea, garaian garai, faktore etnikoa ala klase faktorea izan ote den edo zein proportziotan gailendu zaion bata besteari sasoian sasoi. Badirudi, gutxienez XVI. mendetik aurrera bigarrena izan dela emekiro lehenengoari gailenduz joan zaiona, Euskal Herri zapalduaren historia euskal klase subalternoen historia izan dela. Eta badela. Eta haiena izango dela, izatekotan, berpizkundea. /

Argitaraturik
2020KO APIRILEAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa eta Erredakzioa
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
GR 1731-2019

Lizentzia



IPAR EUSKAL HERRIKO

ELKAR TASUN SAREA

OSASUN PRINTZIPIO UNIBERTSALA

OSASUNA INTERES EKONOMIKOEN GAINETIK

Mundua gizakion beharren arabera antolatua izateetik urrun, kapital akumulazioaren arabera antolatua da, hau da, esplotatzai-leen interes ekonomikoaren arabera. Insti-tuzio politikoak ere logika horren arabera antolatuak dira, eta beraz, Estatu egiture-tatik hartzen diren neurriek xede hori erraztea dute helburu azken instantzian. Horregatik, argi da Estatu Frantsesak ez duela gure osasuna lehenetsiko, baizik eta kapitalisten interesak. Bestenaz, zergatik ez da hetsi osasun krisi honek iraun bitar-tean beharrezkoak ez den lantegi oro ?

ASKATASUN POLITIKOEN BERMEA

SALBUESPENEZKO NEURRI POLITIKOEN DEUSEZTAPENA

Osasuna babesteko aurkezten zaizkigun neurriekin, askatasun politikoak deusez-tatzen dizkigute. Egun bateik bestera, «gerla» edo «urgentzia egoeren» izenean, ezin dugu etxetik atera, ezin dugu antolatu, jendarme eta polizia inguratuak gira eta sakrifiziorako eta Frantziaren batasune-rako deiek betetzen dizkigute belarriak. Klase jabeduna antolatua da eta gure bizien gaineke erabakiak hartzen ditu, guri

antolatzeko eta mobilizatzeko gaitasuna kenduak zaizkigularik.

AUTO-ANTOLAKUNTZA

OFENTSIBA EKONOMIKO ETA POLITIKOAREN KONTRA

Baldintza ekonomiko eta politikoaren okertze planifikatua, osasun krisiaren testuinguru-tik aitzina ere luzatuko dela dirudi. Lan eskubideak gehiago murriztuak izanen direla iragarri dute. Sektore babesgabeek, etxegabe zein errefusiatuak, egoera zinez larrian dira. Etxean indarkeria jasa-ten duten emazteak egun guzia erasotzai-leen ondoan izatera kondenatuak dira. Presoak oraino bakartuagoak dira. Egune-ro, anitz langilek haien osasuna eta bizia arriskatzen dute lanean babes-baliabide eskasagatik. Ospitaleak, azken urteetan hainbeste murrizketa jasan ondoren, guztiz gaindituak dira, eta bertako langileak egoera jasangaitzean dihardute lanean... Ongizate Estatuaren ideala geroz eta urrunago dugu, eta ez dirudi itzuliiko denik.

Sistemaren kontraesanak erakutsi dituen egoera laggarri honen aitzinean, beste printzipio batzuen arabera antolatzea da gure aterabide bakarra, interes ekonomiko kapitalisten eta indibidualisten gainetik:

ZAINTZA ETA ELKARTASUNA.

Antola gaitezen!

EGIA

COVID19 EPIDEMIAREN KAUSAK, DIMENTSIOA ETA ERAGINAK ARGITU

COVID19 eritasunaren inguruko egia ezezaguna zaigu, nahiz eta agerikoa den birus horren sorrerak eta zabalpenak ez diela bakarrik naturaren legeei erantzuten. Ekoizpen eredu honen funtzionamendua-ren ondorio gisa bakarrik ulertzen ahal dugu egun duen dimentsioa hartu izana. Langile klasekoek ez dugu ballabiderik pandemiaren jatorria eta eraginen dituen mota guzietako kalteak behar bezala ikertzeko. Informazioa ez da gure eskutan. Sistema honetako boteredunen eskutan da eta horrekin nahi dutena egiten dute.

[illegible]